



6-XII-1888

9-VIII-1961

ORIXE

OMENALDI

"ORIXE"

O M E N A L D I

EUSKALTZAINDIAREN ARDURAPEAN

ARGITARATUA

DONOSTIA

1965

N.º Rgto. 7287/65

D. L. 5. S. 845/65

GRAFICAS ÍZARRA

PEÑA Y GOÑI, 13

SAN SEBASTIAN

ATARIKOA

MITXELENA'TAR L. M.
Euskaltzaña

Acliskide on batzuek eskatu didate, ez dakit ongi zergatik, "Orixe'-ren gorazarretan irten den liburu mardul onen atarian mintza nadin. Onenbeste euskal-idazle garairen aldamenean, obe litzake, noski, ni azken~aldean azaltzea, iñon azaltzekotan. Besterik erabaki dute> ordea, eía ez diet ukorik egin nai. Ezetz esatea, nolazpait e?e, "Orixe"-rekiko zorra ez aitortu nai izatea bezalatsu bailitzake: euskaldun guztiok dugurui eta₇ batez ere, nik rxeronek dudana.

Goresmenik bear balu₇ aski litzake esatea, eta ez gendv-ke egia soilla baizik esango, Euskal-erriari eta euskerari eskeifii dizkiola bere bizitza luze eta lanpeluaren fruiturik geienak eta o/ienak, etengabeko ahalegiñen gaiña eta bikaiña. Ori naikoa ez balitz, gaiñera, esan diteke bere obra dugula bear bada asmoz eta neurriz, erabat arturik eta iñorena gutxietsi gabe, euskal-idazle batek, noiznaikoa den, sortu duen larriena.

Azterketan asi ezkeru, esan bear da aurreaurrenik ez dela beti izan "Orixe\ orain besterik badirudi ere, euskal-letren aitagoi onetsia eta ezin-ukituzko eredua. Aitzitik, asieran eta geroago ere bai. bere gisa eta bere kabuz ibilli zen luzaroan, giroari entzungor egiñik. Bere bidetik abiatu nai zuen eta bere buruaren jabe izan, gizona izan ditekean neurrian, ez iñoren esanera egon. Izkuntzari dagokion aldetik, be-;riz, ez zen berrizale —orduko zenbaitek nai zutekean adiña ez, beñiñpein—, zaharzale baizik: aoz eta izkribuz jaso zuen

ondarearcn zainlaille lcial, zaintzaille leial izale orrek garai artako errepidctik haztertuko hazuen ere.

Plazaren erdian geroago agcrtu zilzaigun bcte-betea, "Euskallzaleak" sortu zaneke arlan, sortze ori giro hcrrien ailzindari eta ondore izan haitzen euskal-lileraturarcn alorrean. Berc bailalik onlzen zituenak aski ez zirela, lasler ikusi genduen zenbaitctaraiñokoa izan zan bere eragiña eta gidaritzaz "Lizardi" biotzekoaren arrigarritzko lora-aldi lahur artan. Eikarri loturik geneuzkan adiskide bion izenak eta, "Lizardi" hear baiño lehenago galdu gcnduencan, "Orixz"-gan landaturik gelditu ziren gure usteak, itxaropenak ela ametsak.

Besteak bestc, onek eman bear zigun, aurki jakin gcnduenez, euskaldun umezurlzok cz genduen poema nagusia. Lanean ari zen, aurreratuxea zuen lana, are bukalua ere bai. Ordaan, ordea —eta zertan oroitaraiz guztiok gogoan daukaguna?—, gauaren illunak uxatu zuen aldi bateko poesiarren argia.

Ela, alaz ere, gaiñerako ezbearrak aski ez genituelarik. ez giñan gutxi beste naigabc eta kezka larri baten mendcan geundenak. Galdua ote dugu —aritu giñan luzaroan galdezka, bata besteari eta nork gere buruari— poema jaioberria? Cerrateen ondoan, azkenik, artu genduen eranlzuna eta eranltzunarckin atsedena.

Osorik zegoen poema, osorik ela hizirik. Zaliren hat edo beste ikusi genduen eta cgunen batean, zenbait euskaltzale presturi eskerrak, irten zen argilara, azal ederrez jantzia, leh.en eta oraingo Euskal-erriaren ispillu garbia.

Urte aielan eldu zen gorengo maillara "Orixz"-ren izcna eta omena. Bizirik genduen gure arlean gau-egunetako ametsetan hilla genbiltzan izkunz-eredua, irakaslea cta urrutiko gaillurrelarik bidea erakusten zigun gidaria. Poemaz landa. guiñera, ez zegoen geldirik "Orixz". Bere cuskal-lanak, iñoiz cz hezala, samaldan zetozkigun, multzuka, bala heslearen gain, ilz lauz eta itz neurtuz. Ela bakoitza, banan-hanan, lehengocn ospea geitzen ela- zabaltzen ari zilzaigun.

Ez ninlzac, aatik, egiarcn aldeko zuzcn agcrluko guzliok dakigun zerbait ixilduko haldin banu. Diodan. bada, labur-

bearrez, zerbail berri agerlu dela gure artean gerra-ondoko urle oetan: beslelako pentsabidea bestelako bizimoduen eskutik, giro-aldaera larria, erriko eta alzerriko aize berrien eragiñaz.

Ez naiz n: cmen mintzatuko ez giro-aldaera orren alde e,z kontra. Gertatua da eta eziiv bestekoa, gertatua den ezkeror. Ísan bearko clut, ordea, orlaz ari bait-gera, aldakuntza orrek —usleak, sinesleak eta ospeak astindu dituen balioen trukaera izanik— ez diola "Orixe'-ri ere, ustez edozein eztabaidaren gaiñetik geneukan "Orixe"-ri berari, begiramenik gorde. Guztion aitormenez irabazia zuen irakasletza eta giclaritza ukatu dio oraintsu batek baiño geiagok.

Izkerarekikoa da gutxiena, ez baita ori barren sakonean clabiUen zurrunbiUoaren gaiña eta axala baizik. Ogei-ogeitabost-ogeitamar urle onelan gora-behera gaitzak ikusi dituzte. gauzek eta, gauzekin batean, gure gauzekiko iritziek.

"Orixe'-k, gaiñera, eta zertxobait ezagutzen zuenak ikus zezakean ori alclez aurretik, ez zuen amorerik eman. Bigundu eta samurlu bearrean, gogortzen asi zitzaigun, gero la gorrigo, naiz eta, orrelarako iñoiz igundu zituenak berak onetsi bear bazituen ere. Naiago zuen ark zaharzale agertu berri-zaleen aldian; lehengo bateko berrizaleak bezain berrizale. ordea, zaharzaleak eta errizaleak gaillenduxe zaizkigun garaiean

Bestetan esan dul CEgan 1961, 157 eta ondokoak) cta be rriz ere esalea ez da alferrik izango ba zutela elkarren antzik l'namuno'k eta "Orixe'-k, onek ere Contra esto y acjnello izenda baitzitzakean eskubide osoz bere lanik asko. Erro batelik jaioak ziran eta, aldiaren eta giroaren goiari amor eman bearrean, gogor egingo zioten, leher-ezlanda gaizto cgingo bazuten ere, balak eta besteak.

Ain zuzen ere, berresan dezadan bidenabar. elkarren b'tx-kiak clirudite beste zcrhaitetan ere. Izan ere, Jainkoaren bi-Íía abiatu ziren biak eta ez zuten atsedetik arlu eriotzeko orcluan baizik. Bide batetik eta berelik ez zirela ibilli esango didale noski, ez zela sekula "Orixe" bicle nagusilik baztertu ez errebelatu billakcta luzer orretan. Ez naiz nor, ez

dago esan bearrik, auzi ori erabakilzeko. Neri, nohinai ere, billaizea iruditzen zait lehen puntua, billaizeko modua baiño areago, eta PascaVek beinlzat baielz esango lidake: "Ez iutzake ene billa ibilliko, aurkitu ez banindult". Ez naiz batiere segur, beslalde, guk bezain begi onez ikusiak izango ote zireti "Orixe"-ren billaketak —eta Unamunó'renak zer esanik ez— gai oriek orain baiño zorrozkiago artzen ziluzien garairen batean bizi izan balitz. Denbora bateko ainbeste cta ainbeste "argitu" artzen ditut Lckuko. eta Eneko Loiolukoa bera cre bai, mislikarako isuria lieresi-kulsuaren pareko etsi ditckéalako ezaugarritzal.

Gure ondorengoek, orain pixkaren bal ahazturik badaukate ere, aurkituko dute berriz egunen batean "Orixe", arri-menez eta espanluz. Gurasorik gabe mirariz jaioa balitz bezala, or baitago gure aurrean ez oraingo, ez egungo egune-A'q, iñoizko cldi urrun bateko seme dirudiela. Galilco-aurre'koa dugula esan izan dut, jakite berriaren ukatzaillea. Jakile orretatik sorlu den industriari ere ez dio leku andirik opa be.re poema nagusian.

Gu, ordca, eta are geiago gaztcagoak, jakite orretan aziak gera, oraingo irietan bizi geranak. fabrikaz inguralu'ik. Geienik biztu gaituen pocsia ere ez da antziñakoa, ezta ere orren irudira ondu zen XVI-XVI[garren mendeetakoa: "Orixe"-k iguin zitucn erromaniikoek ase gaituzte eta are ark iguinago ziiuzkean ondokoek.

Ez naiz, ordea. gaizki csaka ari. Gure aldikoa izan baililz, gure gisako gizona eta. idazlea izango gendukean, ohea naiz kaxkarragoa, baiña antzekoa eta kidea. Eu\kal~erria~ren aldi igaro illun artatik ilzuri zelarik, ordea, bestelakoa agertu da gure artean. aspaldikoa ela noiznaikoa, eta noiznaikotasun orri eskerrak eskeiñi digu iñoiz euskaldun batck euskeraz eman duen betiko Euskal-erriaren irudirik bcteena. Be.lea diot, ez bailu illunabarren laiño beltzik. Txomin Agirre'rena goibeltzcn cta trislatzen duenaren antzekorik.

Ez ziluen oraingo eta oraintsuko jeodeak ongi ezagutzen: Ucgsonen kutsua eta eragiña aurkitzen zuen, esate bale-

rako, "Txillardcgi'-gan. Eta zer? Berak landu ela eraberri-tu dizkigu euskal-prosa eta neurtitzak, izkuntza ere zahar-berrituaz. Anlziñako joera klasikoei jarraituaz, bear bada, baiña alfer egonak geniluen joera oriek bera etorri arte. Berak erakutsi digu —egitez, itzez baiño geiago— gaí dcla gure izkuntza edonongo edozer itzullzeko ela bereganatze-ko. Bcrak, gauza dela euskera biotzaren sentierarik izku-tuenak adierazteko. Axalez bakarrik baitzen leorra, otza ta xehena, ez barrenez. Bestela uste izatea barkakizun zaio crbesteko bati —EI intruso egin zucn Blasco Ibáñcz'i, esale batcrako—. cz cuskaldun bati. Ez ote dugu, bada, nabailzen gvure baitan crbarearen auts otzak estaltzen duen su kiskal-garri ori berori?

Orain, emen utzi ginduen ^oOrixe' urrutixeagotik ikusten dugunean, orain da garaia bere lanak obeto aztertzeke eía zeatzago ezagutzeko. Azpian gcnduzkan itzala- luzatzen ari da la mehtzcn: orain artu bear genituzke aren luze-labvr rraren neurri zealzak. Orretarako, argitara dilzagun argita-ra gchcak eta ihusmira dJtzagun astiroago argitaratunk. Ori nai luke batipat liburu onek eta laguntza ederra eskeiñiko dio, onenbeste "Orixe"-zale bikaiñi eskcrrak, lan orretan asi nai duenari.

Neure aldetik zerbait ailortzea zillegi bazait, ausariuko uinízake esatera "Orixé" gramatikalaria dela gutxien asetzen nauena. Gramatika, izan cre, jakite enpirikoa da eta berak beste bidetatik eraman nai zuen, Erdi Aroko eta gero ia (iraintsukoen antzera, cz bait-genituen ezagun Sartaldean. c.;aterako, Panini baten moldeak. Baiña akats ori, akaisa haldin hada, utsa. da bcsteen aldean.

Gizon bezala, eta auxc da Jioski lehcnbizikoa, ezin-obeá da "Orixe -k utzi digun ercdm. Egiázko gizon.. bere burua-rckin borroka ela Jainkoaren billa, egiazko euskaldun cta cuskalJlzale, Euskal-erriaren seme jator, ez itzez eta oihuz, egunoroko lanaren lancz baizik. Goian bego eta. bildu zi-gun uzta onerako izan bckigu, bizi zitzaigunean bezalaxc.

G I Z O N A

«Orixe» zanaren bizialdia

(NOIZ ETA NUN)

ARANALDE'TAR J. M.

6-XII-1888.—Egun ortan jaio zan Gipuzkoa'ko Oreja^n eguerdiko amabitan. Gurasoak: Juan Bautista Ormaetxea eta Manuela Ignacia Pellejero. Iruxkia, Martin eta Diouisia'kin.

111-1889.—Uitzi'ko Errekalde baserrira eraman zuten azitzera.

1905.—Jesus'en Lagundi'ra jun zan. Javier'en jardun zuau ikasten bi urtez.

12-IV-1907.—Javier'tik Loiola'ra aldatu zan. Lenengo bi urteak noviziotan eman zitun. Gero, "humanidades" ikasten.

IX-1910.—Burgos'era, La Merced izeneko ikastetxera, klasisikoak ikastera. Beste bi urte ortan.

1912.—Oña'ra, filosofia ikastera. Ontan iru urte.

1915.—Komillas'era doa, bi urtez maixutzan jardun dedin.

1917.—Carrión de los Condes'era, maixutzara ere, beste bi urterako.

1919.—Tudela'ra dijoa, berriro irakastera.

1920.—Javier'era, beste urte bat maixutzan eman dezan.

1921.—Oña'n sartzen da, teologia ikasteko asmoz.

- 1923.—Oña'tik Javier'era Lxango, ikaskctak elena/., eta Javier'tik etxcra, Jesus'en Lagundia lagaz.
- 1923-1931.—Aldi au, aundienez, Bilbo'n egin zun. Urte aue-tan argitara zitun onako liburu auek: SANTA CRUZ APAIZA (1929), MIREIO (1930), TORMES'KO ITSU MUTILLA (1929).
- 1931-1936.—Urte auek, bere jaiotcrrian igaro zitun. Urle auetau egin zitun BARNEMUINETAN ela EUSKAL-DUNAK, bigarren au geroago agertu zan arren. 1936¹-garrenean sortu zitzaigun gudatea, ta urte orren bigarren alderdia, espetxean, San Cristobaren, igaro zun.
- 1937.—Tolosa'n eman zun urte osoa, bere arrebareu etxean.
- 1938.—Frantzi'ra atera zan. Donibanc Loilzun'cn egon zan lenbizitik.
- IX-1940.—Saubion'a (Lourdes) aldatu zan ta emen bizi izan zan 1943'garren Orri]la¹ren 6 arte.
- 6-V-1943.—SaubiouMik Air-Sur-L'Adoui^era. Emcndik Be iharram'a, urrena Baigorri'ra, gero Donibane'ra ta emcndik ArgentinaVa, gero Chile'ra ta gero El Salvador^cra. Frantzi^n zegola egin zun URTE GUZIKO MEZA-BEZPERAK.
- 24-XI-1954.—Iritxi zan Bilbo'ra Amerika'tik.
- 1955.—Lazkano^ko Beneditarretara jun zan. Urte ontan antolatu zun AITORKIZUNAK irarkolarako, ta 1956'garren Erregcnctarako eman zun, bukaturik, argitara zezaten.
- 1956.—Lazkau'tik TolosaVa itzuli zan bcrriro, ta urte ortan bertan, azken aldera, Orejaha bildu zan.
- 1958.—ArarnaVa (Gipuzkoa) aldatu zan Orcja'tik, illoha apaiz batengana.
- 29-XII-1959.—Añorga'ra (Gipuzkoa) bere illoba apaizarc-kin.
- 9-yiIr]961.—II zan, .

Nikolas Ormaetxea (1888-1961)

«Orixe» zanaren biografirako XEHETASUN ZENBAIT

LABAYEN'DAR A. M. («lbalan*»)
EuskaKzafila

«Curriculum vitae»

Nikolas Ormaetxea, "Orixe" 1961'garren Dagonillaren 9'n. il zitzaigun, Jainkoa'ren altzora, betiko atsedenera joa-teko. Adiskide-malkoak isuri ondoren tá aren alde otoitz be-ioak egin da gero, naigabeak arenganako gure ezaguera sa-kondu digula uste dugu, eta orain arte esandakoaz gañera aipamen luzeagoa zor diogu noski.

Zer-nolako kristau zintzo, gizon aundi ta euskaldun idazle bikain ta letraduna izan zan esatea dagokigu.

Artzai-mutil

1888'garren Abenduaren 5'n Oresa'ko "Iriarte" etxea/i jaio zan. Nekazari-ardizale familia batean, Gipuzkoa-Nafa-rra muga artan guziak ala bait-dira. Gurasoak gero, bizitze-ra Benta Berri etxera aldatu ziran, eta azkenik etxe-aldeko arreba ezkunduta, "Gogortzanea" erosi ta ementxe jarri zi-ran bizitzei.

Senidez urri ez zan ormaetxeatari'en etxeau, esandako abendu artan iru aur sortu ziran: neska bi ta gure "muti-

lla" . Ama batek azitzeko geiegi. Ezin gajoak bi bularrez ira aur azi, Nikolas'ek sarri eta zapal aitortuko duanez. Erkin atera ez zitezen, irutako bat, Nikolas, ain zuzen, Litzi'ra iñudcarengana eraman zuten. Maitetsu ta biotz-zabalez artu zuten aurra Errekalde, Uitziko etxeakoak, batik bat Asiuilxi amandreak, eta orexatar aurra, napar koskor biurtu zan, eta arczkero ez zituan saltzcko ez iñude ez Asuntxi ta ez Errekalde ta ez Uitziko erria. Aur ta gaztaroa cmen igaro bait-zituan; bcr lan lcnengo eskola ikasi eta bev-tan lanean asi. Ordutik zekizkin crrotik nekazaritza, artzain-tza ta mendi ta basoko lantcgi guziak.

Jesuiten ardi-galdu

Mutikoa arras ernc ta bizkorra zetorrcla-ta, Jesuitak Nafarroa'ko Xabier'en dutcn ikastetxera eramatea erabaki zuten etxeakoak 1908 urtean.

Antxc jarraitu zuan zintzo-zintzo bost-pa-sei urtean. Doi-doi gazteleraz mintzatzen sartu zan gaztetxoa, an gizon egi-ñik jakituriz jantzi zan goi mallako ikaskizunetara eroso iritxirik. Xabier'tik Oña, Tudcla ta Comillas'era aldatu zu-ten, Filosofia, Teologia ta apaiz ixturio sakonenak bururatze-ra. Jainkoa'ren asmocan ez zegoan "Orixe" apeztu zedin; cta osasun-kariz batetik, eta ayurritz edo iñoren esanera ta iñendcko }}izitzcko ezigaitza izaki bestetik, Jesuiten jantzia ufzi cta aien artetik irten bearra izan zuan. Naiz crrilijioz eia naiz jakitatez, aztarren sendoa utzi zioten ordea jesuitak.

Y_ eia munduan bere buruaren jaun cta jabe gedi ta gero ere. beti azkcn-arnasa arte, Nikolas Ormaetxea¹k beti gorde zuan Jesus'cn Lagundiarenganako zaletasuna ta itzala, eta I^oyola'ko Inazio Donearen semetzakoa.

Gizon gaitza

Gizon bezela Nikolas Ormaetxea'k griña ta zima borti-tzak zituan, bcre adimen cta talentuaren neurrikoak. Au C3anez, ez dut iraintzen nere adiskide miña, baizik jaso ta gorcsten. Guzia zuan ark, izarian aundia, neurritz gañekoa.

Entzulo aimdiko gizona, cragille bizkorra, bazlerrak astindu ziluana. Ogi-bidelzat cskribitzaille-lantegia arturik. cuskeraz ala erderaz paperak erruz bete ditu rnota guziko lanez. Euskaltzaindia'rcn lcmdakari R. M. Azkue jaunak Leragana otsegin zion Akademia'ren lanetau lagu zezaiou. 'Euskera', "Euskal-Esnalea", "Yakintza" ta beste aldizkarietan izena ezaguarazi zuan. Bear bada, geienik nabarmendu zan "*Kirikiño*" idazle ospetsuarcn ondoren, "Euzkadi" cguiukariareu euskel-ataleko zuzcndari jardun zuancau. Burruka ta cztabaidan uagusi zan, irakurleak Ixunditurik utzi-rik. Napar-giputz-euskera ez ezen, bizkaieraz cre "ederto" luma dantzatzen zekiau. "Mireio"-reu cta •Tormes'ko itsu-mulilla", *LazariLlo de Tormes'en* euskcrapeuak, orduki>xcak ditugu. Baita ere "Santa Kruz apaiza liburulxoa. Itziauz aspctu bat eginda Poesirako zuan dci berezia czin ukatu bada-ta, batik bat 1931'garrenean *ErrenderVn J Olerli jaia* zala-ta, itz-neurtu mislikotarra jo zuan...

Ordukua du "BARNE-MUÑETAN", jainkozko liburuxka. goitar ta aundia bcrc txikian.

Sarreran Lizardi'ren iritziak dakarzki bcrtso auci bnruz; eta "Lauxeta'ren esana ere bai: 'mingarri zala "Orixe" k lirika-saillean ez areago yardulea" adicraziaz (1).

Eta guzia scudotzeko, J. M. Eslefania, S. J. adiskide ta ikasle-laguu izan zuanaren aitormena: Ormaelxea'ren poesia, jator, gain-gañeko, oro dendu, garlxu naiz Kristau-•arauz, naiz antze-arauz. Ez genczakcn amestu "Orixe" baino oberik.

«Euskaldunak» poema

Lizardi ta "Orixe"ren czaguera ta adiskidetasuna, gara, artakoak dira, 1928¹ko urtcrau elkar czagutu zuten. "Orixe", Euskal-Esnalea elkarteak eratutako it/aldi bat ematera etorri zan Bilbo'tik Donostia'ra. 1928'ko Azaroaren 28'n. Itzaldiaren gaia onoko auxa: "*Orain arteko euskal neurtitzak*". Esan bearrik ez dago Lizardi enlzuleen artean zcgoala. Eia

(1) Baine-Muñetan. — Itzaunea.

cgtm artatik biok adiskide mami-niami bitirtu ziran; il artio etengo ez zan adiskidetasun miñez. Arrezkero elkarganako joera ta atxikimcndu bizia gorde zuten, gero ta geiago indarlzen joau zana. Bein eta beriiz esan bearra dago "Orixe" k bultza zuala Lizardi "Biotz-Bcgietan" argilaratze-ra; baiñan era berean "Orixe" k ez zuan "Euskaldunak" poema ederra itlalzi ta bururalu izango, ez balti Lizarcli' k artara beartu.

"Orixe" k oso olerkari aunditzat zeukan Lizardi, leku askotan adierazi digun bezela. Ez du iífork obetti, aren alcieko ^akintza" aldizkarian egin zuan krilika. Raiúan Lizardi' k orobat ez zuan gutxiago goersten "Orixe" ren poetagintza, ta ezagutu ta aztertu zituan "Euskaldunak" poemaren kantak, oso edertzat zeuzkan, irizle-mirizle zeubaitek poema nagusi ori gutxietsi nai izau badu ere. Focsiarik cz duala ta beste zozokeriak esaitez. Pocsia mota askotxo dira ta bakoitzak gogoko zaiona aukera dezakc, noski. Baiiian ez dezaiaela besteri uka eskubidc berdiñik: Ta euskra egosi cz dtian sasimaisu ta euskeldun berri batek, esau badu, diotejiez, "Euskaldunak" s... usai dariola, gizarajoari erantzun genczaioke: "bere prakak izango dituala zikinduak. "Euskaldunak" poemareu kantetatik darioJt usai gozo, lurrin aísegiña oarlu ta nabaitzeu ez duanak, ez du sudur onik, ez seuk, euskaldungoaren bame-mtiin ela mamia txastatzcko

Beste leku bateait (2) esan dut Poema orri buruz barruak agintzen zidana, eta ez diot ezer kejidu ez erantsi, nai orduan azaldutakoai-i. Geienaz auxe: oraingo "olatu berriko" poctatxoai aren mallata irixtea kostako zaiela, uste dudala.

Papini' ren iritzia

"Orixe" izau geutten, batetik, olerkari barrenkoi, mistiku, jainkotiar, bakartia; bestetik, ordea, erri-zale, elkar koi, birgiliotar purrukatua...

"Orixc" ri Giovarmi Papini ospetsuak ain zorrotz ida

(2) Compendio del Poema "Euskaldiinak". E. Itxaropcna, Zaraus, 1951.

tziriko ilz aiek dagozkio: "*Poeta de la vita agreste*" (ez *dolce vita* noski), euskeraz 'iarre-olerkaria' esan genezake. Bai!: 'iarre-oierkaria' (norbailzuek gaiztoz 'ijasurde' ez izena einan baziotcn e.re). Papini'ren iritziaz Iatiudar literatura osoan, Virjilio bakarra izan da basarritarren bizilza, benctan nekazari gogo ta espiritzu senti duana. "Orixe" dugu Virjilio euskalduna. Eta Papini'ri jarraituaz, uste du 'EuskaJdunak' poerna bikaña euskaldungoari eta gure rje-kazari-Janari eskeñitako oroigallu ta kantategirik ederrenn dugula. Papini'ren arabera: "*auíentica poe.ua de la vita ogreste* ta ez... (3).

I ba'aiz, ni ba'nauk

Bere jakiiuri eta adiinen zorrolza ela guzi, aur xalo tolesgabe utsa zan gauza askotan. Barnean zuaua, gezurrezko apaltasuuk gabe agertzen zuau.. Beiñola, i! baño iruz-palau illabete aurretik, adiskide batekin Oleikaritzari burir'. mintzatzeu ari zirala, onek gorasarre egin zion "Orixe"ri esancz: zu zaitugu euskalduu poeta epikorik aundiena... baiñaji liriku bczcla Lizardi gallenego ez ote-dan nago... Ta "Orixe"k bumari eragiñez: "Ez —erantzun zion lañoki—. Ez, liriku saillean ere ni uauzu nagusi".

Olakoxea genduen gure 'gizonn"! Bere "EUN OLER-KIAK" Ebanjelio gaien ouduak argilaratulakoan ikusi bcar. jvitzia egilazkoa clan.

Lizardi ta «Orixe»

Literatura guzietan elkarrekin aipa bear izan oi-diran izeuak ezagutzen ditugu: poeta-bikote parcgabeak. Esale]>atrako: Virjilio ta Horazio Erroma'n: Goethe ta Sebiller, Alemauia'n, ta abar efa abar.

(3) Giovanni Papini. — Ecl. Aguilar, 1957. "Espía del Mundo". Tomo III "lileiatura ciudadanesca liecha por gente nacida cntre selva de paredes, que vive entre stircos asfaltados o empedrados; y que ve Ja campiña cuando Ja ve, bastante Jejós, como escenario idílico, o como refugio higiénico. Para esos Ja campiña es siempre la quinta, separada del mal olor de los cstablos, y separada de los Jabradores".

Gurc motzean zergatik ez aitatu Adema-Zalduby ta Eli zanburu, ta batik bal "Orixe" ta Lizardi?... Bata besteren-gandik oso urbil jbilli bait-ziran nmnduan. Lizardi zortzi urtez gazleago izanagatik, 29 urtez lenago il zau 'Orixe'" ba-ño. Ta bear bada izaeraz ez ain kide, adiñez ainbat. Alaz ta guziaz, ezin uka diteken berdintasuna dizute biek. Eta aveago eriotzak Jainkoa'ren altzora eraman zituan ezkerro: betiko lotuta, bal egiñik daude. Ez bait dute geiago aldieron tarterik.

Munduan bizi ziralarik, iñoiz zear-bidetatik zioaze.n. Ez ziran beti batera etortzen. Bakoitzak nortasun berezia iza ki-ta, biok zaletasun ta olermenez, berdiñez ornituak zeu-den.

Askok Lizardi geienik goستن dutc; ta ez zaie lirika -barrutian ain gogoko "Orixe". Lizardi, horaziotar, jauutxo apain. "Orixe", basa-olerkari, gizon latz... Gai orretzaz jar-dimgo dcgu orain lantxo ontan. Aldez aurretik ordea, ira-kurleari ouu bat cman uai nioke. Berak astiro ta geldirik «'iztertu ta irakur ditzala, bai Lizardi ta bai 'Orixe'"ren ber-t?o-lanak. Zenbat cta geiago arakatu orduan ta gustagarri.i-go egingo zaizkitzu; orduan eta gogorago txaslako duzu aieri olerki-lanetik darion ezti gozoa.

Juan Ramon Jimenez'en urrezko itzak datozkit gogora: Cuando no entiendo un poema o parte de él no insisto, me salisfágo eon lo que entiendo; y estoy seguro de que otra vez y en otras condiciones entenderé más. Como eu la Na-luraleza librc, la comprensión de un poema viene por sor-presas succsivas". Egia benctan.

Arazo guzietan, eta batez ere Literaturau, gauzak nola liegiratu... ala izan oi dira... Izadiaren edertasun bera ez da guzientzat berdiña. Yakinzale zeatzegiak ez dute Poesi-be-giz ikuslen, berc teknikaz baizik; eta, jakiña. ezin Olerti-rik geigi maite. Gure arri zaar eta ezur-billzaille batzuek gaitz ortaz kutsutu zaizkigu, ta gai ortan jakintsu dugun Juan San Martin adiskide maite jatorrak diñozku: (4) 'Olerkariak gure baserriak loraz beterik ikusten dituztela;

(4) EGAN, 1962. 4-6 Zenbakia "Zuloaga eta gu".

ela ínendigoizaleak ikusten dugu cgia: lora gutxi ta zimaureta kirats asko". Auentzat Virjili'ren "Jeorjikak" ez dira gczur utsa besterik... Zimaurre! Usai txarrak orrenbeste nardatzen al-zaitue? Kanean ere ba dugu naiko kirats, ain milika ez izateko. Tolosa ingurura ctorri bcslela!

Beste lcku batcan idazle bcrak oso oker, nere ustez, 'Euskaldunak" pocma bikaiñaren jarclun-lagunagatik auxecsaten du: (5) "Paketsuak, apalak, motelak eta totelak" agerlzen dirala.

Min ematen du, gurc idazle baten ain itz iraingairiak irakurtzeak. "Euskaldunak" lcnengo duan Mikel, izen goitiz, ain zuzen ELEDER deitua, totel ez ezik bertsolari ta iucderren jabc azaltzen zaigu beti. Eta orobat poeman errux azaltzen diran beste laguncn solasak ela erriaren kantategi osoa. Eta ango aizkolari, korrikalari, segalari, arraunlari, palankari eta abar, kirol eta joku-barrutian alde batetik; eta bestetik laborari, nekazari, ikazkin, artzai, arrantzale, ola-gizon, mariñcl eta beargiñak, apal eta paketsu dira geienak. Bai ordea, azkar, bizkor, kementsu, griñez boteak bear bada, baiñan ez epel eta motelak. Juan San Martin'i ilzak nuubait asmoa zuan baño arnntzago joan zaizkio. Ela cibartar idazle gazte argiak gaizki csandakoak, leialki zuzenc'uko dilualakoan nago. Nola lugintzaren, nekazaritzaren aunditasuna cz goretsi?...

Orain bi milla urte Virjilio'k egindakoa, gure 'Orixe" aztu-eziñak, "Euskaldunak" poema nagusian berritu ta osatu du.

Mundu guzia eta gu areago, baserritar, nekazari ta meudi-langilleen bizimaña scndotu ta goratu beai-rean gaude. Gizona ez da iñon goilarrago Ama cluan lurraren ondoau l:ño. An Natura'ren erdian, soro, baso, mendi, landare, abre, pizti, txori ta erlez inguraturik. B'ta cuskaltasunari gaurdaño eutsi dioten seme leialenai zor zaien begirunea eman bear cliegu.

"Ai laborari gaixoa" kanta zuen garratz Elxaun'ek. "La

(5) IBID. 4-6 Zenbakia. "Zeren Billa".

borari doatsua" esau bear dugu Virjilio ta "'Orixe 'rekin batera, zor zaien lagiuitza eniaii eta zoriona ezagutu-araziaz.

Mezenas'ek ez zuan alperrik Virjilio bultzatu "Georjikas" bururatzcra. Ez ta Lizardi'k ere 'Orixe", 'Euskaldunak' kantalegi ederra ilzneurtuan ondutzero... Guziok guie jalorriarcn maitasuna ar dezagun.

Lugiutza galdu ba'Iedi, muudnan dagou eclertamnik aivndienetakoa galduko litzake. Eta gnk. edertasuna ez ezen, cuskaldungoa; Ots! izate osoa.

Illobia Donostia'n

'Lizardi" ta "Orixe'ren alderatzc-Ian]]aldar an bukalzera no a.

Askozaz obelo egin zitekela badakit. Neri zegokidana azaldn dut beintzat, ezin barruan isilik gorde nualarik: eta bijoa adiskide bcn omenaldi antzo.

Beste asmo bat ere crnetu zitzaidau biotzean. Alegia, ain clkarturik bizi izan ziraneu korputzak lur sanluan elkarren ondoan egon zitezela egun aundirarte. Eta Lizardi'rcn ezurak Tolosa'ko kanpo santuan dauden czkcro, "Orixe"-reuak ere bertara ekarri ta illobi batean jarri zitezkel, deitura labor onen pean:

'Gure artean ez dute izan kiderik,
Nekez duteke garailerik'

Alabañan, ncre gutizia ezin aurrcra crman al izan da, bitartc ortan donostiar orixezale kutun batzuek Polloe'ko kanpo sanluan lurra erosi ta "Orixc" zanaren kotputza an eortzia bait dute.

Bego, beraz, bertan! Donostia Tolosa bezin toki eroso ta egokia da, noski, "Orixe"ren maitaleak, mm naitik bidez-kari ta otoitz-txangoz etorri al izateko.

Diru-eskeari ondo erantzun du jendeak eta laister erai-kiko da illobi bat xuue baiñan iramikorra. Arri cdcrki lan-

duau, bere izen, jaiotz eta eriotz egunak ez ezik, gurutzca
(iala goiburu cta berak erakulsi zizkigun itz-ueurtu barren-
koio:

'Agur, fetle, lurrean
uuen itsu mutil,
zuri esker leizean
ez nun egin auil.

Geroak jakin dezan 'Orixe" zer nolako kristau, zintzo,
olerkari goitar eta euskaldun aundi izan *zan*.

«ORIXE» GIZON

ETXANIZ'TAR NEMESI («Amillaitz»)
EuskaHzaIndikoa

Ori da gizona! —esan oi-degu euskaldunok—. Gaur, gure artetik aldegiña degun "Orixe" aitatzekotan, "Ura zan gizona!" esan-bearrean gaude. Ziran asko, alakoak bai-ziran; eta geranok, aien lagun-arterik gabe, *emen* ari gera orain euskal-arloan umezurtz, joan ziranen alderdiak gogoratu nairik.

Kanpion, Azkue, Lhande, Olabide... Aiek gizonak! Euskalerrian ezezik, mundu zabalean ere, beren aundia zabaídu ziguten; eta aien aldean oso ttattar ikusten degu geron burua.

:(f * *

Añorga'ko Zabalegi etxean, eriotz-laiñoa sortu zanean, gure "Orixe" aundia ete, bere atzaparretan eramau zigun. Egun aretan ebaki zan gelditzen zitzaigun euskal-adarrik ostotsuena. 11-kanpai arek gure biotzak dolu beltzean ito zituan. Zabalegi'ko belazetan bera zerraldoaren atzetik joan giñanok, ba-genekian euskerak nolako galera aundia zuan aren galtzeaz Eta onela goaz, gaur bat, biar bestea gal-leni ta gazteen artean, etzaigu joandakoen maillakorik sortzen.

Euskal-zelaiak dituzten etsai amorratuak, cskuak kalte egiteko askaluak; eta euskal-lanetarako egiñak zeuden gizonak, geroago ta urriago ditugu baztarretan. Benelan soil

ikusten dcgu geron burua burruka latz ontan. Ela gu erc ba-goaz... urteak aurrera cta buiuak zuri.

• ♣ •

Noiz ezagutu ote-geuduau gure gizona? Aspalditxo, nola-nai ere. Comillas'ko Apaizgaitegian giñan. Irugarren urlea gcuerarnan etxc artan, ela aurreko urtcau jo ginduan euskal-miñak biotzcan. Gurc lenbiziko bcrtsa ta lan txikiak. etzuten arnas aundirik; baiña ba-genckian jesulagunen artean, norbait, oso euskal-idazle bikaiña zana; ta ain zuzeu ere, urte artan, Comillas'cra bialdu ziguten, apaizgaicn zaitzailc ta maixu izalera, gure "Oññxe" aundia.

Urlea, milla bedcratzireim da amalaugarrena zan. Ama lau urte gurekin eta nra amesa jesulagun ura ikusi genduan! Bereala egin genduan lagun-arte. Ordutik giñan eza-gimak, ordutik lagunak.

Ostegun eta igandetan, ibiltzera ateratzen giñanean, ba-genduan itzcgiteko aukera, ta sarri jotzcn genizun alkarrengana, gure buru laburrak aren jakitez jazteko gogoz. Itxa¹-aldeko ondarretara, inguruetakoa mendictara giñoazela, ba-zuten gure ibilliak alako poz bcrra bat. Gizon arek gure illunpe artan, argi berriak sorlzen zizkiguu. Gazleok zirikatzeke ba-zckarren "Orixe" k ordutik akulu ta ezlena. Ta al« joan zan gurctzat urte ura.

Osasuncz ba-zuan zerbait okcr. Sarri, gurc ikas-arctoan ikasleok zaitzen zegoela, buruari eutsika ateratzen ikuslen genduau. Ainbeste mutikoren lurrinak, etzion onik egiten. nuubait; eta bumko miñez irten-l)carrean arkitzen zan geun-*oen* tokitik aizetara.

Poliki-poliki aren bizitza berri jakiten asi giñan...

* ♣ *

¹"Orixe" k jaiotzatik zekarrcn bcrekin, osasunean ajercn bat. Amak aur-aldi batean iru scme-alaba izan bai-zituan: eta iragarrena, gurc "Orixe". Irurak geitxo amarentzat, eta

orregatik, Naparroa'ko Uitz'i'ra eramau zuten mutikoa beste Lular batzuetan aztera. An, bularrarekin batean xurgatuko zuan bere euskal-giro jator ura. Antxe arkitu ere, bere errcgu ta otoitzetan erakuslerik onena izango zuan amona xar ura. Uitz'i'ko Errckaldea'n mamitu zan, euskal-idazle bikai-netako bat izatcra iritxiko zan gizon ura.

Txiki-txikitatik, gauzak oso bero artzcu zituan gizontxo ak. Errekalde'ko andrc-gizonak gurasotzat jotzen zizkigun, cla urte batzuek cgin-da bere etxera itzuli zuteneau, ez ari esan Orcxa'ko senar-emazte aiek bere guraso zituanik. Mutikoa elzan ain errez aldatzekoa, ta aiek etzirala bere guraso. Kasketaldiak cman ziou, eta nork ura gozatu? Berriro Uitz'i'ra eraman bear izan zuten, paketuko ba-zan.

Arcna ikusia zegoan: Uitz'i'n mutil egingo zan, ela Uitz'i'n ikasiko ziluan euskal-itx eta esaerak. Antxe jantziko zan aren burua euskal-giroz eta aidez. Zcnbat zor diogun erri txiki orri, gunc "Orixe" ain euskal-maixu gnrcn egin i:igulako!

Gipuzkoa'ko mukan jaioa, Naparroa'ko mintzacraz abe-rastua aziko zitzaigun gero idazle bikain izango gcnduan aurra. Baiña berc. buruko-miñak goiz joko zuan gunc »aztca.

Amazazpi urtetan, Xabier'ko jesulagunen ikastetxera bi-dea artuko zigun. Bercala igarri zioten jesulagunak, etzala zozoa mutilla. Erdera gutxi izan arren, ba-zuan ezpala. Aren buru argiak, crdera ta ikaste berriak zorrotz aztcrlycn zituan. Eta ikasle motz sartu zana, bereala maixu bikain egin zan.

Bere eginkizun ta lanetan, etzuan erdizkarik. Artzen , ' zuan lana, bene-bcnelan artu, edo bat ere ez. Ori zan aren , ' jokabidca. Orrek sortzen zion, iñolaz ere, bere buioiko min ura. Etzuan ncurririk, cta bere burua orrelakoetan estuegi jartzeu zizun lanean.

Estuegi ta luzeegi. Asi ezkcro, azkenik ez. Azken-urte auetan, bere illoba apaizarekin zeraman bizia. Joxe Mari

Aranalde apaizak oso edcrki artzen zizkion jieurri ta laiñezak. Ta apaiz onekin zituan bere artu-emanak.

Egun batcan, bazkal-ondoan, pozik arkitu zuan osaba gure apaiz onek:

—Joxe Mari! —diotsa— Auzi bat crabaki declala ttsti.-det.

—Ze auzi, osaba?

—Noiz AREN cta noiz BERE esan])car degnn cuskaldunok.

—Beti ari zera buru orrctau.

—Auzi ori ogeitaka urtelan neraman nere burnan. elu ba-zan erabakilzeko garaia.

Olakotxea genun gure gizonarcn jarduna: etcngabea H bizi guziko. Gero burua samurtu bcar, ba. Burulapen bat sartzcn zitzaionean, alperrik aitatuko zcnion beslc konturik. Asiko ziñan beste kontuetan, eta "Orixek" bigarrcn itzerako k-ngora joko zizun bcrriro. Korapilloa edo cgitekoa buraln arte, ctzion bere cgitekoari pakerik emaugo.

Izaera orrek azkcnerarte iraun zion. Milla bederatzireun da berrogei ta cmezortzigarrcnean zau; Abcndnak amalau zituau. "Orixek" ebaiketa bat egin bcarrean arkitu zan. Opc razio artara joan-aurreko egunetan, ACTO TA POTENTIA zituan buruan. Filosofi-arazo oiek an zebilzkion buruan gorra ta bera. Jarri zutcn bere cbaiketa-jnaian, eta kendu zioteu zcnlzu.

Bere onera etortzen asi zanean, artcan crdi-zorabiatu; i zcguala, urreratu zaio illoba apaiza. Itz-otsik etzuen artean. cta bclarria gaxoaren czpaiñeiau josi du illobak. "Orixek" bere erdi-totelcan:

—Joxe Mari! Acto ta Potcntia... Ederki zegok!

Ebaiketa ondorcne ere, "Orixek" bere artara.

Ikaste-Ianak erc, alaxe artuko zizkitzun. Bcte-bctean ela argi osoa sorlu arle. Iñoiz, "Orixek" bere erantznnak cmateu irakasleari, eta ikas-lagunak txaloka lertuko ziran. Ain erantzun bikañak eta argiak emalen zekian!

Ba-zekiten, bai, nolako yaya zan erakusten ere. Beti izan oi-ctira motelak eta atzeratuak ikastetxetan. Beren ur-tckoei jarraitu eziñik, atzeratuak gelditzen diranak. Ala Xabier'eu ere. Ta gero Iruña'ra joan bear zan azlerketara. Orduan ziran larriak!

Irakasleak "Orixe"ri deitu, eta lagun atzeratu aiek bere e^kuetan jarriko zizkion. "Orixe"k bere egiñal artan jasoko zuan lan berri ura. Eta ikasle motel aiek Iruña'n ctzuten porrotik egiteu. Urtekoa, beiñepein, gainduko zuten suspen-tíorik gabe. Orregatik bein baiño geiagotan "Orixe'ren Erre-loreak, beste Erretoreekin egiten zituan billeratan, gurb Miutilla maixu-eredutzat jartzen zien beste Erretoreeri.

Musikarako ere, oso belarri ona zigun "Orixe"k. Notak ozta-ozta ezagutzcn zituan, baiña ala ere, etzan atzera geldit-zen. Aste. Santu batean, OizartzabaFdar Martin apaiza, bcre clxean euki zuan Orexa'n. Jarri da Oizartzabal apaiza armo-nioan, eta "Orixe" kantatzen. Asteazken Santu'ko lenbiziko antifonan asi-ta Pazku Eguneke Alleluyataraiñoko guzia, zuzcn kantatu zion, aldemcncan jarrita. Ta uota, aldez au-vreiiik arlzen omen-zion organistari. Biolinjoilleei azterkctetan jo-crazten zaien soiñu bat ere, txistuka joko zizun ederki ii-^ko; ta ura bezela bestc asko.

Txistularien doiñu zarrak oso gogoan zituan, eta aien aicle ta gorabarak zeatz cmaten zizkigun, zirikatzen gendue-ncan. Aietako batean, lagun batzuek Bedaio'ko txistulari zarrarengana eramau zuten. Bi edo iru galdera ta aidercn bat entzunda besterik gabe, artu zituan aren doiñuak.

* * *

Ez uste, ordea, soiñu utsarekin bclctzen zanik. Berarek esan oi-zuan, erdcraz ari zancan:

—Yo no soy bombrc, soy bambre.

Gizon ordez gose zan bera, zionez. Uitzin amaika aldiz ikusia; sukalderik ez, arek jan gabarik. Euicn txasta. an ikutu... ta ala ere, bciñcre kendu gabeko gosea aldean.

Lizarcirk bere grazi arekin ematen digu ITZ LAUZ li-

buruan, beste onelako baten berri. "Orixe", Lizardi ta beste lgun batzuek Bidasoz bestaldera joauak zirau. Euska!-Biltzarra bai-zan egim aretan Donapaleu'n. "Orixc'k ba-zeraman ixilleko bat berekin: Lizardi'ren anai baten papelak. aJegia, muga igarotzeko. Gezur ura Lizardi'k bakarrik zekian; bcste Jagunak ez.

Bazkari-legea ta jaia bukatu oudoren, Baigorri'tik zear jo zuten Elizondo¹ra. Apari-lekua aukeratu ta maian cxeri ziraneke, Lizardi asi zaio zirika:

—Ta?... "Uitzi"... Goizekoa esango al-degu, ba?...

Larri zan gizagaixoa! UkabiIIa estu-estu egiñaz;

—Yainkoa'k barka!... Ez gero!

Gure mai-muturrcko lagunak:

—Zer, zer?... Yakin bear diagu ori...

Ta zirika nik, berriro; ta berriro —yateari zcaro uzteka, noski— "Uitzi" k:

—Yainkoa'k bai'kal! Ez dczagula csan!!!

Baiña alperrik ibilli zan. Bcin artara czkero ni ere eneu-goan ixiltzcko, ta aren urduriak gero ta axkurcagotzen ginduzen guziok. Ta astiro astiro, itzez-itiz... orra yalki guzia...

Ura yolasa alera zuten artatik bcstc biak!

Ta "Uilzi" gizagaxoa, berrogci urtetik gorako gizasem; tinkoa, Homero ta Virgilio kolkoau sartuta darabiltzian gizona, estu ta larri, esku batean *ogi-puska la bestean ollasko-izlarra (la agoan bietarik aski)*, berc burua gerizatu eziñik. neri crru guziak cgotzi-naiean, neronek alako eginbideetan sarttt Jjai-omen-nim (egia zanez...).

* :: ‡

Onczkero igarri zenion, "Uitzi" gure "Orixe"ren goitizen bezela aitatzen digula Lizardi'k. Baiña bai poliki adierazia cmen, gure gizonaren jan-pozal!

Azken-aldi ontau ere, Prautzi-aldeko Euskalcrrian zala, norbaitek bazkatzera deitua zuan gure "Orixe". Onek laguu bati esau dio "Orixe" uola egun artan jatera etortzekoa duan, eta lagunak berari:

—Motell! Koulu cgizak, iru deitu ditukala bazkaritara.

Ala izan ere. Edauean czin neurritik irten, ordea. Barruak neurria artzcn zion orretan. Lagun balzuek bcin, alkar artuta, mozkortu nai izan zuten. Alpcrrik izan ziran aicn alegiñak. Barruak ez uzten geiegirik edaten. Kopa ba-Ixuek edan ezkcro, negarrari emateu omen-zion.

Azken-aldera lendik zetorkion ezucria, erreuma, nausitu zitzaion gizajoari, ta arek craman zuan uste gutxieua gendueanean.

* * *

Gorputzaren alcletik zituan goraberak esan ditugun ez-kero, gogo-aldetik zituanak ere, esau ditzagun. Oso biotz-bera zcnduan gure idazlea. Lizardi'ren eriolz-bcrria Bilbo'u yegoela eman ziolen. Arek lagunei:

—Zoaztc, ta ni ere aldetik joango naiz.

Lagun artu ura gorputz ikusteko kemenik ez.

Tolosa'n, Lizardi'ri egin genion goratzarre artan, "Orixe" negarrcz bukatu zuan bere itzaldia. Andik laster eramango zigun eriotzak gure adiskide miña.

Alakotxe samur-bera zuan bere biotza. Illoba apaizari. zigarroa utzi bear zukcala esateko ere, ncarrez asi bear. Eta etxekoren bat galtzen zuanena ere, esan bearrik ez.

Aur-giroa zuan aren animak. Utsak poztu ta utsak erre-mintzen zizun. Ta bere burua ederresten ere, aurre bezelakotxea gcnduan. Sentitzen zuaua, ínalizi gabe esango zizun bere gorapenean.

Bcre osasunak lagundu izan ba-lío, oraindik urtetarako izango genduan gure ta euskeraren onerako; baiña aspal'Ji ontan jetxi zuen bere gorputzaren iudarra ta sasoia. Esku

ta oñak ezueriz ondatuak zeuzkan aspaldi outan, cta agur-tzen giñuzenean, jakiña zan aren deadarra eskua cmatera-koan:

—Kontuz!

Aundituak bai-zituan cskuak, eta niin artzen, estutzen genizkionean.

Gaitz aren iturria, bere barnea geiegi lotzetik zetorkion. noski. Oso bai-zan eztua bere animako gauzetan.

Eguu bateau, gaztea zala, Uitzin' n jaiak. .lai-pozera. ?iex-ka lengusu bat etorria zutcn. Gabea, ctxeau bestc lekuri- ez, eta neskatxa ura "Orixeren gelan, beste oe batean sar- tzen dute. Aiek jakin mutilla nolako zintzoa zau, eta nexka kczkarik gabe an ntzi zioten.

"Orixe" larri bere ogean. Gaztea izan eta irudimenak ct'i odolak pakcrik ez. Alako gau larririk! Gau guzian alde ba- tera ta bestera ogea edcrki nastu zuan, baiña gau osoa lorik artu gabe joan zitzaion.

Emaknme-kontuan beti izan gcnduen orrelakotxe estu ta zintzoa. Ameriketa'ra joan zanean, irurogei urte izau arren, etzuan bere buruarcn koupiantza geiegi. Ta aragiarcn irrika guziak obcto iltzearren, aragi, arrautz eta bestc janari askn bertanbera utzi zituan. Andik auldu zitzaion osasuna. ta czueria gciago nagusitu. Bcrc gizatasuna mendcratzc artan. burruka bizia egin zion berc gorputzari.

Amcrikarrak, AVE FRIA deitzen omen-zioien, emaku- mcak, beste gizakumeen antzera, begiz jaten etzitulako.

Baiña aren oztasuna ctzan ortan berezkoa; burruka ta alegiñez iritxitakoa baizik. Bere Jaungoikoarekiko arlu- -cmanak nolakoak ziran garbi asko erakusten digu idazlo berak bere BARNE-MUINETAN idaztian. Jainko-giroz in- guratua bizi zala, cderki asko esaten digu asicra zoragani artan:

Aitzin-gibcl, ezker-cskuin
gain ta barnc
neurtzen ari nauzun Begi,

zure dirdaiz, argi berriz
 soil dakusat
 uts-ez, ogcn-naizela ni.

Mistika-sallean noiako aurrerapcnak ckarri dizkigun, berc azken-sari bczela utzi digun JAINKO-BILLA idaztian ikusiko dcgu. Oraindik argitaltzcko gcldilu zaigun liburu ori, bere azken-itx bezela utzi bait-digu.

* * *

Bildurrez geunden azken-illabete auelan. 'Orixe'-ven osa suna ari batetik esegia ikusten gcuduen ínaiz. Aren udaldiak balczcre, soin guzia mota gorriz betea jartzen zion, eta gorriunc aietatik odola zeriola gelditzen zan gizajoa. Senda-gillc saiatua izan zuan Zilbeti jauna. Arriola jauna ere alcindu zitzaion lentxcago, baiña dcna alpcrrik. "Orixe"-ren osasuna etzan bere betera etortzcn.

Gaitza zcrbait arintzen zitzaioncko, an jaikilzen zan bc rrituta bezela ogctik. Eta motcldua zegoanean ikustckoa iza-teu zan, euskal-gaietan dabilzkigun cztabaidak nola pizteu zulcn. Ari itza ateratzeko, ctzan cuskal-gaircn bat aitatzea bczelako esnagarrik. Ortan burruka-oillarra zirutlin.

Len, Bilbo'n bizi izan zanean, ango garbi-zaleen aurko joka zuau bizi; eta orain, zenbait idazle gaztcen iritziak cuskera mordollora jo duteneau, garbi-zale aiek obctzat jo ditu, gaurko zenbait mordoillo-zale baiño. Ori zan 'Orixe': mokoka asteko beti gertu.

Bein ere etzaizkigu aztuko, azkcñ-aldi ontako Zabalc-gi'n igaro genituan arratsalde goxo aiek. Sapaillu zabalean cxcñ, ta Ernani'ko Santa Barbara-aldera begira, aiek ordu beteak! Eta "Orixe" zirikatu ondoren, nolako parreak arcñ aleraldiak entzunda!

Ala zan gizona; ta egim bateau, bere illobaren besoelan burua etzana zuala, eraman zigun Jaiukoak bere argitara.

Bi aste paseak nituan Zabalegi-aldera agerlu gabc. Urren-

go eguneau joango nintzala, ba... ta uslegabeko berri beltzak jo ninduan biotzean:

—"Orixé" il omen-dek!

Jainko maitea! Ura miña gogoan!

Ta arrczkero cmen gabiltz umezurlzak bezela.

GURE IRUXKI AUNDIA

ARANALDE'TAR J. M.

Jun dan agorrean, tvenez nenbiLlela, "Orixe" zanaren adixkide aundi batekin egin nun topo; ta arritzeko ez daua, ill-berri gendun gure "Qrixe"ren kontua atera gendun. izke taldian. Artaz ari giñala, nere lagunak "naparra zan, noski, Uitzi'n jaioa?", esan zidan. Arritu nindtm galdera arek: baña, gerora, nere buru pentsatzen jarririk, asmatu det zer-gatik gerta diteken "Orixe" mvngoia zan ziur ez jakitea, eta naparra zala uste izatea. Juan Goikoetxea abadeak ere ala esan omen zim noizbaiteko batean: "naparrok bear dugu 'Orixe". Bidezko gauza, nor berearen jabe egitea. Ikus de zagun ordea zer eskubide degun bakoitzak, gereaa dugula esateko.

"Deuok bat" izentatzen dun poemaren zatian esanik dago. aren jaiotzaz askok ez dakiten zerbait. Ona zer diagon:

"Ama gaxoak, aurraldi balez,
titi bañan aur geiago".

Etzan bakarrik azia amaren sabelean. Beste bi senidr, izan zitun kabi-lagun altzo beroan. Argatik gertatu zan ama titi bañan aur geiagorekiu aur-aldi artan. "Iruxkia" gendun "Orixe", ta irugarren jaioa, poeman ere diona. Ta "azken jaio zalako", norbait bakandu bear, eta ura keudu zioten amari, jai-o zan erritik beste batera eramenez azi zedin. Ontan dago, aren jaioterria zein zan garbi jakitea galerazten dien traba.

Oreja'n jaio zan, Gipuzkoa'n, 1888¹garreneai, abendua ren ó^an. Andik Uitzí'ra, Naparro'ra, eranan zuten azitzera. Giputza genduu beraz izatez, azitzez naparra ba da ere. INaparrak berena dutela? Giputzak berenago. Bañan ez gaitzcn mntur-joka ibilli "Orixe"z jabctu nairik. Euskaldun dan guziak berea baitu ura.

Uitzin egin zitvui amazazpi urteak ez zeuzkan azteko "Orixe". Berak ailorlzen zunez, an arkilu baizituu bi maixu bere bizialdian azagulu zitunetan onenak. Eskolan bat, maixua, ta azi zuteneko sendian bestea, amon-ordea, Askotau cntzim gcnion, Uitziko eskolan izan zun ura bezelako erakuslerik ctzula gero Jesus^en Lagundia'n ezagutu, eta andik kanpora crc ez. Ta amona? Animako gurasorik onena. Oraindik argilara gabe dagon olerki batean, ala dio:

*Ua lako gurasorik / otoitzean ez dut kausi"

Amon-illoba-orde aiek zer artu-eman izan zituzten otoi-tza bitarteko zutela, Jainkoak bestek cz daki. Artu-cman oiek liburu koxkor baterako aiña gai ba dute, ta ez det orain Jardaskatu nai, iraizean itzerdi batzuk esanez.

Azkenik, Uitzí maite zun "Orixe". Euskalerria¹ren ar nasa, gero poeman "mamitu" zuna, an eman ziotelako, Esaten du poeman, euskal-alderdi guzietako azia iritxi zala erri txiki artara, dcnak an beren zitua emanez, arek gero bere poeman metatu zuna.

Uitzí^tik artu zun erc, erabilli oi zun 'ORIXE" izcu-ordea. Begira nolako moduz. Urtean bein joaten omen Ore ja'ra gurasoengana, ta UitzFko ailon batek arcn etxe ondolik igarotzean OrcjaVa bideau, ala galdetzen omen urtero: "OrixeVa al zoaz, Nikolas?" Ta "bai, jauna, ala noa". Aren esanez gañera artu zigun, gaur ain ezaguna zaigun Ormaetxea¹lar Nikolas'en izen-ordea.

UitzFtik Iesu^ren Lagundi^ra. Amaika urtetan utzi zun eskola ta amazazpi zitula sartu zan jesuitetan. Maixuak eta apaizak eragin zioten artara, iesu-lagun bat errira aui' billa elorri zan batean. Elzitzaión, beraz, berari jaio ara joatea. Beste norabaitera bidea erakutsi ba lediote ere, berdin joango zala esaten zun.

111 aurreko egunetan, gogoan zeukan artean, ara irilxi zanean jarri zioten esamiña, eskolaz nola zagon ikusteko. 'Oración compuesta" zaion oietako bat bota omen zioten, cta bereala erantzun omcn zicn, zein esangune zan aielan nagusi ta zeintzuk zitmi araskin eta nola.

Bi gauzatxo, ikastaro auelaz.

Eskolan geiena zckitenak aurrena zirala jarlzen omen ziran, ta "Orixe" aurrena edo bigarren ibiltzen zan beti. Bein. aurrena zegola bildur zan —berak esaten zuu— atzetik zeukanak aurrea artuko ote zion ikasgai batean. Ala, kla seko ordua irilxi da, ta larri gure gizona; baña arkitu zun lasatseko artea. Garai artan oso errexa omen zim sudurrc-iik odola asiaztea. Ta zer egingo, ta klasea asteko puntuan. sudurrari azkure egin eta odola asiazi, ta maixuari kanpora atcratze-baimena eskatu.

Bcrak esanez gañcra dakigu, beti bedcralzi ta amar izan zirala notak. Bein bakarrik atera omen zun zortziko bat eta orduan negarrari eman ziola, esaten zun. Bidezko gauza zerizkion gañcra uskeri arengatik negar cgitea.

Erakusten egin zitimeko urtetako zerbait ere ba da ai-pagarri. Bi alditau txaloka jarriazi omen zituu ikasleak, latitiñean ari zirala eskolan. Bcar du gero irufiarren urteko auf batzuk klasean txaloka jarriaraztcko. Bcre ikasléri entzunik dakigu, erruz maitc zutela, ta berebiziko begirunca ziotela. Ikasle izan zitzaion batek, ala jartzen zion bein esku-titz batcan: "A Ud. sus discípulos le adoran".

Icsuilcn karrcra guzia egiña zan. Azken urtea bakarrik clzun maixukin eman. Ura bere gisa ikasia zizun.

Andik atera ta guda ondoren artcko urteak emen egin zitim, emengo cuskalcrrian. Aldi onlan egonik luzena Bil bo'n igaro zun Azkue zanaren aldamenean. Zortzi urte luzetan jarduu zan Bizkai'ko uriburuan. Guda-oslean, Fran-tzi'ra atera zan .

An, aldi batean, alcmanan mcnde egona izan bear zun 'campo de co)icentración" oietako batean. Bcrak esaten zu-nez, an egon zanean aiña lan ez /un iñuu egin. Arriturik

egoten umen ziran zaitzalleak 'Orixe k lo nola egiten zuu ikusita.

FranlzPn zegola gertatu zitzaion beste au ere. Norbait-tek bein bazkaltzera dei egin zion, ta jaun oni len bere ctxean jaten izan znn beste batek, ala csan omen zion belarrira, etxcra zemakila ikusirik: "Egizu kontu iru bazkaídar dituzula". Alakoxc jalea bailzan "'Orixe', batez ere garai artan, eta noiznai ere aundia.

Besle batean ere gertatu zitzaion polita Frintzi'n. Jaun batek itzaldi batzuk cmaten zitun noski, ta 'Orixe" cntzu tcn. Itzlariak esan zitun aiubat gauza cz zerizkion egi nunbait eta atera diranean eldu dio. Ari dira bizi-bizi teman, batek bat ela bestcak bestea alkar estutuz, ela ala dio ilzaldia eman zunak alako batean: "Zer ari zera zu nerckin ezcza la baiezka? Ncri aztu zaidanaren crdia ikasten deznnean, jakintsu aundi bat izango zera". Etzan edozein ura cre.

Frintzi'tik Amerikctara egin urrengo txangoa. Angorik ere esan dezagun zerbait. Bi izen jarri zizkioten an. 'Ave fría" la "Truman". Lenengoa emakumezkoeri begiratzten etzielako, edo, angoak bczcla begiz jaten ibiltzen etzalako. Ta bigarrena... antza zulako nunbait. Tndiar batck egimcro "Eun on, Truman jauna" diosola egiten omen zion, ta 'Orixe"k "berdin, andre Gandi" erantzuua. Beste bein ondartza batcan zebillela, ala sumalu omen zitun bi andrazko: "Bcgiraion orroko orri.aizan. Truman ematen din".

Zazpi mte datorren iliean egingo dira andik etoiri zitzaigula; baña ez da naikoa andik elorri zala esalea, zerk t:karriarazi zun ere jakin, jaim-audreak. Egnnero Jaunartzeagatik bakarrik etorri zan Amerikctatik. Askoz atsegiña-go zitzaion lur ura Euskalerrria baño la askozaz ederrago zerizkion. Norbaitek onera zanean, arako Iparragirren "baña biotzak dio: Zoaz Euskalcrrira" ura gogoraziz egin zion e?kutitza, ta par egiten zun. Ango lurra, ango abereak, augo eguzkia... askoz maiteago zitun erri-lurra Jiaño. Beraz. clzuan ekarriazi errimaileak, Jainkomaileak baizik.

Gerozko ontan *emen* ibilli zaigu, batean an, bestcan

emen, batzutan ongi ta geienelan erdigaxo odo gaxoterdi. Ta gutxiua ustean, or eraman digu Jainkoak. Uilzira eraman zunak eta andik Iesu'ren LagundTra, ta andik aterazi zn nak eta maite zulako bere denboran gorriak erakutsiazi zizkionak. Bai, jaun-andrcak, ^{li}Orixe' gorriak ikusita joana da mundu ontatik bestera; baña emcn ikusi zitun gorri oiek baño gorriago zegon arek biotzcan zeukan Jainko-maitasun-garra ta su ortan etzuten erretzeu bé ontako min-gorriak. Ta au daukagu orain, gnk nai baío Jen beregana eraman zun Jainkoaren altzoan. An argilan, Jesus eguzkiaren alboan, kristau izar aundienetakotan. auixíicnetakolan. bfriz csan. aundienetakotan.

Aren atsekabecn bukaerak negar egiñarazi digunori eia-kutsi dczaigula, arek maitatu zitun gauzak maitatzen: JAJN-KOA ta EUSKERA.

"Orixe" Euskaltzain

GARMENDIA'TAR JON («Zeleta»
Euskaltzaindlkon

1959'gko. Azaroa'ren 22'garrru cguua zan, "Orixe" za-
naren oroitzapenez idazlau ontan gogorazi nai degiui eguna.
Egun gogoangarria, bai, benetan, EUSKERA'ren *Menéndez*
Fidal izan zan euskal-idazle gorcetsia, "EUSKALTZAIN-
DÍA'-k bere bazkidetzat edo euskaltzaintzat autetsi zuan
cguna! Baiña, nork uste izan bear zuan, ordea, ain laister
Jainkoa'k Zerura eraman bear zigula bere bizitzan, *gure si-*
nismena scndotu naiaz eta gure izkuntza pizkortu nairik
ainbeste lan cgin zuan euskaldun aundia?

Uste-cztako gertakmi seiniigarri onek gogorazten dit, atzo
izau balitz bczela, Euskaltzaindia'k eraturik bere omenez
ain aundikiro, orain sei urte, Leitzan' ospatu zan EUSKAL-
JAI gogoangarria.

Urte artako neguak izan zuan egvmik *olzena* ta *makurre-*
Ain zuzen, lirikak mintzoa ta batez ere kantua du senti-kizuuaren esapide goiena.. Gidc'k dionez, "poema bat, erest bat bezelatsu, ezta poema billakatzen... giz-ao batean de rauntsanean baizik". Valery'k berc aldictik, poesiak "nai ta naiez gorputzik gabeko arimarik eztedilla lZ.av eskalzen du". Gañerakoz argi dago, olertigiutzako esatc-oldarraldian, kar. tua mintzuraren eta elaireareu luzapena ta zabalpena dala. Orrcxegatik dio Fatone'k bere *Filosofi ta Poesi* saiakeran-"olerkariak kantuz ematera egiten da". Eta gero: "Rabindranath Tagore'k, esanaz-esanaz, kantu bhirtu zitun bere bertsoak eta alakotzat ezagun oi ditu Beugala'ko erriak . Donibanc Guratz'ck erc, csan ez-baña, kantatu cgin zitun bere koplak, eta areu garaiko moja ta mojjagaiak, alakotzat artu zituzten, "maiz maizcuik... aotau bai zckarzkiten".

Poesiak, beraz, kantuan du baloratze aundiena. Mari-taiu'ek, Santo Tomas'en gogorapeu baten arabera, "ilzal; ix.il oi dirauean, kantctau asten dala" dio. Orrela poesia otoitz biurtzen da, ta ezta "Jainkoaren aurrean ixurtzen dan kanlua baizik". Asislar Santuari *Izakien Kantua*\\ gctta ziz-tzaiona: Jainkoareu graziak bere barne-uiuin mamikoenetau ikutu zun eta, orduan, kautetan ekiu zion, cguzkia ta izar-rak, ura ta sua, ao batez ta betean oleskide zitularik.

Aipa dezagun emen San Agustiñ'ck musikari ta kantuari buruz erizlen zuna. Ontaz berc *Aitorkizunak* Iiburuko Xgu. Jarduna'ren XXXIII'gn. atala degu kontuzkoena. Gogora dezagun bidez, Orixe'k euskcraz ondo asko eman ziguna baz-ter guzietan entzute aundiko dan libnru au. Orra zer diou San Agustiñ'ek atal onen asieran: "bclarriko atsegiñak isi-

tukiago nastu ta mcndera izan ninduten; baña aietatik ja-regiu ninduzun". Itz auekin lenaldiko bizierari uko egin nai dio Santuak. Baña gero, Milan'go elizau kantatzen ziran crcsiak entzuten ditu, ta ba dakizute nola ikutu zuten biotzean. Kantu aiek eman zioteu ere bere *De Musica* idatziaren scigarren liburuko gaia. Ona cmcn zerk dakarren durduri ta kezka: "zentzu-arrazoien bide ontan, zenlzuak ezlu atzetik joaten ctsitzcn, aitzilik aurretik crakusfun joan nai du, lagun izatca adimenari zor badio ere". Bildur da *aircak* eta *mintzoak* zcntzucn alsegiñaz *atxik* eta *lot* gcldiaraz dezaten: "esanak baño leloak eragitenago nauneau". alegia. [zan ere, batzutan —gorago dionez— "baitirudit gisa dan baño dcdu aundiago damaiodala; alako kantuak ola kanlatu ezik baño kantaturik, gure barrcnari Jainkoagana gaituago daragoitela senti oi dudanean. Gure barne-eragiñak oro ba dute berarizko adierazpidc bat kantuan cta miutzotan, eta aidego ixil batek crnarazlen ditu". Eta aurreago. "zenbait aldiz zorrotzegi okcrlzen naiz. Dabid'en ercsi-lek) bigun gnziak belarritik eta Elizatik ere baztertu naiko m tuzke". Baña nola azlu, Elizan kantatzen entzunaz ixuri zitun raalko gozoak? Orregatik dio ger-o: "A'.are- Eliz-kanluak ncrci eraginmalkoctaz oroitzean, bai iedca arkitu bcrrian, bai orain ere, ez kantuagatik, kantatzen diran gauzen-gatik, mintzo garbiz t?. egiera egokiz kanla oi diranean. oitura au guziz onuragarri dala aitortzen dut bcrriro'.

Gero ere, bere *De Musica* liburuan, Santuak aitcrlzcn dn. musikak, erliak eta cdcrtasunak bezcla, dun arriskua: ari lotzcn eta artan puhmpatzen dan arimarenlzat kutunkeri gerta dedin, Jainkorako bidean arlaz mailzat balia bearrcan. Gerogo, ordea, Santua kanluari osorik lot zitzaion. Onek, ain zuzcn, sentimen-adierazpidc utsa dantzat aitor-tzera darama, ots, biotzak esau eziña duuaren azalpide bakarra bezela. Berc *Enarrationes in Psalmos* liburuari gagozkio emen, *De Musica* ondoren idatzia baitu. Aitalzcn degun atal-puska, *kanta zaiozute kantu berri bat* ilzcn adierazkizuna da, ta onela dio: "Nork kanta dezaioke ongi, kantu ta eresgillc *dan Jaanari?* Noiz cskeñi *zaioke*?'u gisako kantiT bat, belarri ain beteentzat ezertan mingarri estitckenik?

Baña, orra, Berak darakuskigu gisako kantabidea; etzaile zela, Jainkoari laket zaizkioken itzen billa ibilli. Kauta zazu *pozkarior*; ori da Jainkoari ongi kantalzoa: *pozkarior*: kantatu. Zer da *pozkarior* kantatzea? Begira: biotzez kant.i oi-dana itzcz adierazi ezziña. Izan cre, naiz igitaldian, naiz masbillzaroan, rraiz edozein lankizun leiatsuan kauta oi-dutcnak, kantetan miutzoz pozarren jauzika asten diranean. senti oi-duten poz aundia itzez adicraz ezin dutelavik. czтира kantu oien itzez oartzen eta pozkarior-doñuetava jotzen dute. Beraz, *pozkarior*ak au csan nai du: biolzak, csan-cziña aditzera ernateko egiten ditun cgiñaletako doña".

Januariiis'i gutuuean, orobat, kantua ren aldezko jocra Itcrliera azaltzen digu; an ere kantua "arirnari otoitzera eragitcko ta artan jaiukozko maite-biotzaldia irazckitzeko gau'on-oua dala" dio: *ad movedum pie animum et accendendum divinae dilcclionis affectum*. Arego ere: kristau-billeratan eztezacktccla czer obevik, ez onuragarriagorik. ez santuagorik egin. Ain znzen, San Agustiñ'entzat dena maite biurtzcn da, ta kantua da maite-izkera: *canlarc amantis cst*, "maitalcna da kantatzea".

Santo Tomas'ek ere, bcre Sií/na'n bi atal ematen ditu gai cntaz, ots, Jainkorako mintzo ta kantu-gorapenaz. Kantua ren adierazpide-almena, soñuarena baño areago dala dio. Sanluaren aburuz, "kantuarcn suslrai dan mintzo-doñuavi zor dio musikak, eta ez czaviz, berariz baizik, bamc-sentikizuuak azaltzea". Soñuak eztezake zeatz-meatz, ez-egoki edo ezgai baizik, sentikizuu adieraz: ezta *berez* sentikizunen adicrazpidc. Baña mintzoak berak, itzik ebaki gabc, *nasian* eta *ez-berezian* emango du beti sentimena. Fr. Leon Raymond'ek dion bezela, "poza ta naigabea dira kantatzeu; zeiu poza ta zein naigabea, jakiu ere kantua ren itzetatik dakigu. *Verba- sunt distinctio sonus*, dio Santo Tomas'ek, itz auekin aozko musikan itzen arrazoia aditzcva crnanik". Orrela Santo TomasVk barnbizitzavako kantua ren eragimena adierazteu digu, ta, aldi bcrean, baita sentikizuna azaltzeko dun almenik aundiena crc. Oucla mugatzeu du kantua: *canticum autem exultatio mentis de aeternis habita*, "gogamenari bctierako gauzctalik datorkion pozkariora" bezela.

Ezta gañez izango, poesiaren cspiritual-baloratze oni buruz, Fray Luis Leon emen aitatza. Bcre *Krisloren Izenetako* alkar-izketu arabera, poesiaren jainkozko jatorri-burutape-nak eta ouen almeu eraikigarriak jazten eta puztutzen dio bikainki gogameua *Salinas'i* Oc/a'ko lirikan. Gutxitau nabari izan da, Fray Luis'eugan bezela, kristau-gogo barreukor batek senti izan dun betierako miña, metafisiku-jakiteak eta olcrtizko ikasiak dakartu goi-ezagutzaren eta espiritual-gozamenareu bitariko eragintasunaz. Fray LuisVngan cztira iuoiz jakituna ta crtilaria berexten; berak sentilzeu eta eriz-ten dim bczela, poesia "Jainkoak giza-gogoetau ezarri zun, bcre eraginduraz ta cspiriluz ura datorren zerutar jatorrira eraiki al-ditzau; izau ere, pocsia ezta zerutar Jainko-arnasean eskualzea besterik". Eta beste leku batcan, "kautuak ota souuak berez dute arima zcruko gauzctara craikitzeo indarra". Orregatik poesia Fray Luis'en barne bizikerau, Jainkoak berari eman etzion oar-ikasi mistikuaren ordezeko izan zan.

* * *

Aitatu ditzagun orain barne-bizitzarekiko kanlu eragieraren bizpairu adibide: San Inazio, Santa Teresa ta Donibauc Gurutz, alegia.

Gure San Inaziori gagozkala, komko kautua alde bat utzi zulako, ba dirudi ctzula bear bezela baloratzen eliz-kantua. Alaere, Santuaren oldezko barne-sentikizuaa beste'ako zan. A. Ribadeneyra aren bizi-berri cmalleak diouez, "baldin bere oldezko joerari ta kaututik zetorkiou ouurari jarrai jzan balio, jarri bai jarri izango zun korua". A. Cámara'k ere, bere *Memoi ia*/'ean, argi ta garbi adierazten digu nolakoa zan Santuagan, bai eliztar bai erritar kantuen cragintasuna, eta on egiten ziola osasimean ere. "Jainkorako musika ta kantuetaz, Bezperak, Mezak eta olako-etaz alegia, asko ba-jiatzen zan; berak aitortu zidanez, kantuzko elizkizuu oiek egiten ziran elizeu batean sartzen baldin bazau, ba zidurin bereala zcaro kordegabe oi-zala". Baten batean, elizan kantutzen entzunaz, zentzu-galtzeraño egin zun, Mauresa'n zor-

tzi egunez gerla zitzaion bezela: 'Santa LutziTen eliza on • doko gaxotegi-gclatxo batean, an kantatzen ziran Arrati-Otoitzak entzun-eta, kordegabetu egin zan". Eta gero: 'onek otzion bere anirnari bakarrik on egiten, baita bcre gorpulz-osasuuari ere; eta oncla, osasunik gabe edo naigabe-lorraz senti oi-zauean, etzion ura czerk oberik keutzen, etzun detis ere aringarriagorik, anaidccn bati deboziozko leJoen bat kantatzen aditzea baño". Bein Erroman, lor aundiaz oyea zc-golarik, eta atsegin zitzaiolako, Germaniar Ikastetxeko aita Frusio'ri ots-egin zioten, giltz-crcskiña (klabikordioa) jo zezaion; orobat,itsuak kanta oi-dituzten elaircan eta inintzoan, deboziozko prosak kautatzen zitmi koajutore txit laino ta on-utsa zan bati ere. Itsu-lelo oien aipamenak, eliz-kantuak ezezik, erritar-leloak ere San Inazioaren kouortea crnarazten zutela esan nai dn.

* * *

Aitaln dezagun ere Santa Teresa'k 1571'go. Pazkoetako azkcncgunean izan zun zentzu-galtzea, berak dioncz, Jainkoak egin izan zion mesederik aundienetako bat. Aztueziña izan zun, cta ala gogoratzen du bere idaztietan. Zerk eragin zion? Onoko kopla an entzuteak:

Véante mis ojos,	/iakusatzela begiok,
Dulce Jesús bueno,	Jcsus on eta ezti,
Véante mis ojos,	Zakusatzela begiok,
Muérame yo luego.	eta bertan il nadi.

Kantatu, Jcsuscn Isabelek (Ximenak) kantatu zion; ezta kigu, ordca, berarena danik erri-koplagei ezagunaren Jaii;korako iraulpen au. Teresa Ama doatsutzat autatzekoan one-la esan zun: "batez erc ontaz gogoratcn naiz, nola jolastalcian, ni mo jagai nintzala, arimak Jainkoaren aldegiteaz senti oi-dnnaz ziardun kopla (letra) bat kajttalu niou, eta kanta bitartean nola kordegabetu zan beste mojaen artean". Bein baño geiagotan gogoratzen du Sanlak zenlzu-gallze ura, *Scigurren Egonlekuan* adibidez, esanaz "oraingo ontan oso-

rik galdu zula konorlea... bizia cz-gallzea/. itz bat cntzuna/
bakarrik".



Olakotsu bat gerta zitzaion bein Donibane Gurutz'i ere. Ulabetc batzu itxian egona zan Toledo'ko gela itsu ta estu batean. Jakiña danez, an ondu zitun, eta kantatu, berc *Maite-kantak* deritzatenaren lenengo koplak. Espetxctik iges-eginda, Andaluzi-aldera Kalbarioko Eremutegira bide jeix-tean, Beas'ko konbentuko ínojak jainkorako bertso batzu eskeñi zizkieten: bearbada, Jesusen Ana mojaburuak berak lira-neurriz ondutako kopla batzu. Mojaburuak, Fray Joanes'ek itxian eraman bear izan zitun naigabeak arintzearen-edo, beste bi mojai kantatzeko agindu zien. Ona cmen kantatu zioten Jenengo bertsoa (eztakigu gañerakoen ber-rririk):

Ouien no sabe dc penas	INegar-erri onetan
en este trisle valle de do-	eztakicnak nckecri berri,
no sabe dc buenas, lores,	on-berririk cztaki,
ni ha gustado de amores,	inaiterik ere ez txesta,
pues penas es el traje de	nekczo baita maitalc-jantzi.
[amadores.	

Eta Jaiuko-Amarn Franziska Ama koplariak onela aitor-tu zun Fray Joanes doatsutzat autatzcko epaibidean: "Fray Joanes Gnrtzeko Sanlua, itz auek entzun bezela, biotz-ikutuz samur-samur eginda gelditu zan... ainbat samurtu ere, malko ugari asi bait-zitzaizkion begietaiik jalkitzen eta arpegian beera mara-mara ixurtzen".

Bcste batean, Ul)eda'n il-aurretik gaxo zegolarik, aren ofíaze aundiak arintzeko asmoz, soñulari batzu ckarri zizkio-ten, eta "soñulariak kautatzen ari ziran bitartean, ba ziii-din loak artzen zula. Aick bukatu ondoren, zer zerizkion galdetu-ta, barne-musika leuuago bati adi egon zala eran-tzun zun bcra". Argi dago nola ta noraño cragiten zion musikak eta kantuak Douibanc Gurutz'i, oñazc aundienak az-

tuerazteraño, alcgia. Orregatik, berc *Maite-kanlak'en* XXI'gn. aapaldiaz jardutcan, onela goraipaizen du, musikak arima-rcntzat duu almeua: 'iiracn musikak lcgunki ta gozaro bete oi du arima; eta naigabe ta Iorrak aztutzcraño du txirika-tzen eta lotzen'.

li

ZUGAN BETI NIRE IELO"

A. Garrigou Lagrange'k, bere *Barne-bizitzako iru adiñah* deritzan liburu ederrean, espiritualen eta teologoen arteko mintzaera alderatuz, onela esaten du: "guziz konbeni da, leologoak bcar eztun bezela, mistiku aundiak, Donibanc Gurutz edo Ruysbroeck alegia, beren barne-ikasia aditzera cma tcko olerkari garai izan ditezen".

Auetakoa genun gure "Orixé" ere. Jainkoak abots zo-lirik ari ez eman arren, musikazale genun, crritar, ger-goritar ta klasikoen musikazale, alegia. Oroimen aundiko izanik, ba zekin buruz kantu aski, eta lakct zitzaion ere. a! zunean, irraitiz edo bestc cdozein craz musika-saioak en-tr.utea. Gogoemagun gañera "Orixé" k Eliz-goratzarreak euH-keraz zein egoki eman zizkiguu, ela, oraindik argitara gabc egon arren, baita Dabid'en salmutegia ere.

Ikutu zitun kantagai nagusieuak, erria ta Jainkoa ízau zitun; oraingo onlan, ordea, bigarren gaiari gagozkio ctnen. liera il ondoren azaldu dan olerki-bildumatxoak, au du izen-burutzat: *In te canlatio mea semper*, "Zugan beti nire lclo". Ican ere, Jainkoa izan zun kantagairik aurren eta nagusieu. "nun ona, an biotza". Zabal zagun bere lenengo poesi-libu-rua, "*Barnc-muinetan*" dalakoa, alegia, kaizuz txiki beziu rnamiz jori ta sakona. "Orixé" k berak *Sarrera'n* dionez, ber-tsu ok "argitara bage Iuzaro idukitzeak, barnc-zimiko egiteu zidan, Iainkoaren izen santua eder zezaketclakoz. Burucnik, laister bcstc bcrtsu errirako balzuk cmau bear ta, ok *len-zitu* antzo eman nai izan ditut. Aurrenik Iauugoikoa, egun oin-

bestek uka ta iraintzen duten Iainkoa, nik albait, aitor IH cder nai nukena".

Ain zuzen, ona cmen "Orixe" zanaren guzien aurretiko la gaindiko kezka ta gurari bizia: Jainkoa ederrets eta gorai-patu. Nola gorai-patu ere? Jesulaguu A. Estefaniak libum artarako bidali zion iritzian onela aundiesten du "Orixe'ren poesi jainkoliarra: "Xaki bcrriko olerki Iainkotiarrak ditu ok... Buru-argia ta biotz-beroa czin obeki elkartzcn ditu: antzc-idazketan ikasiareu lankera ta crri-gizou iatorrarena berebat clkarlzen ditu. Au du bcreizgarririk ondozkocna ix s.irkorrena. Onck dio berezkiroko eitea ta kera berria, bere-beregandiko ditunezkoa... '*Barne-rnuinelan -go pocsi-mami-an eta azken-urte otako "Orixe"ren lirika osoan, ibaigclldi antzeko zerbait oartu dut buru-biozketari nagokala. Ezin-ukatzuko Jirika-giroa galdu gabe, geldigiro auudikitar bat evauntsi dio; epiku-usaia, nik uste, besterik baino... Poesi iatorra, gaiu-gainekoa, oi*o dcndu, gartxu, osasun, naiz kris-tau-arauz, naiz anlze-arauz".

A. Estefaniak ain egoki dion onen egiztapidetzat, alda d'tzadan ale bakan batzu. Asierako "Iainkoaren begiera"ko au adibidez:

Aintzin-gibcl, ezkereskuin,
gain ta barne
ncurtzen ari nauzun Begi:
zurc dirdaiz, argi berriz
soil dakusat
uts-ez, ogen-naizela ni.

Eta "Guregan"-go au:

Arnas au Aitagana
dadukat intziri;
biotzez onen lagun
bear nuke beti.
Arnasak diraudano
Arnas barnago oni
lagim iodan soinu
agorrago oneki.

...Aize ta amas, indarka
 alperrik naiz ari,
 orain Iainkoaz oroi,
 oraintxen abantzi.
 Berriz ta berriz gotor
 indarka naiz aki,
 ene ezpainak legor ta
 soinuka belarri.

Eta udan, goiz-goizetik, Trintin'go gañera igo oi dala
 esan ondoren:

Ats eman, Iaun; ezperen
 ilauna dut gaindi;
 aize-errota bczela
 narabiltzu beti.
 Ez nadin gain ontatik
 zoko ortara ietsi;
 nagon galdor goi ontan
 egun eta iguzki.

Fray Luis Leon'ek "Sierra que vas al cielo-altísima..."
 aapaldian aditzera ematen digun apeta berbcra azaltzen di-
 gu emen "Orixe"k. "Sinest-Argi" dalakoan, zentzu ta adi
 mcnak bide okerrez dabiltzala ta naimcna, berriz, Jaunaren
 billa negarrez dagola esan ondoren:

Adimene'k csan zidan
 ikusirik ni ein artan:
 "'Ezak biotz. galai gaztc,
 or duk iretzat cmaztc!
 Andcre cderra, itsu-antzeko:
 ontan ederki zatozte.
 Begiak ditik loturik
 lilluratzeko bildurrik:
 ark dcrabiltzan bide-inguruak
 ain baitira zoragarri!"

"Ilundegi" olcrkian:

Nere ctxe barne oriek
 izena Ilundegi;
 onen orma-iantzia
 ez lur ta ez arri.
 Ormat/.at aize du, utsa,
 utsezko sare-esi.
 Argatik sar diteke
 iare znre argi.

"Utsaren. antza"n:

Utsak ez baitu gairik, antz-bakar
 geldi-bearra du beti;
 alare ez inork utsak adinbal
 antz bere baitan iduki.
 Igeskorrago ta antzgarriago.
 Zer utsa bezain igcsi?

Ez du arriak ur isurkaiak
 ainbat antz, bcregan arlzen;
 itsas-uginak so dagonari
 beti berriak agertzen;
 ler diran oroz adats berri bat
 aparrean dute cratzcn.

Aizea arego: zcra ta lur,
 mendi, zelai, leize-zulo,
 orri ta belar, itzal, oiartzun,
 apar, odei eta laino...
 bere baitan du, naiz iraizean,
 antz berririk dun gauz oro.

Utsa areago: artzen du, antzik
 ez dun Iainkoaren antza...
 Uts geldi nadin, geldi nadi iliui
 Iaunari cmancz aintza,
 diranak oro baino geiago
 artuz guzien kerantza.

"Iainko biur nadin" olerkian, Jesukristo morroi-jantzian dcuseztatu zala ta gero ogi-idurian iduria cre galtzen dula-ta:

Izate guzi Beregan duna
nigatik ezer ezera;
izaterik ez nuen ilun au
Argatik guzi izatera.
Azkengabe dan Iaun arengana
ezer-eza alboratzea
gutxi bailitzan, uts au Iaungoiko
dakar oso biurtzera.

"Benedicamus Patre'n..." deritzan irukoa polita du, ta bere olerkirik errexcnetakoa, bearbada. Aldaketa au luzeegi joan eztedin, alda ditzadan bizpairu bertso. Amas Saindua-rcn jaurelxc dala dio ta:

Begi-belarrik leio,
irudimena ate,
iauretxe onek ditu
irtenguak sare.
Esi itsu baten bidez
ditzazula gorde,
argirik gabe ez dedin
Zu zaudcn aldare.

Txakurra lasai dabil,
gurdia negarti;
lotu ezazu bat au,
beste ori igurtzi.
Pake-gantzua betor,
betor maite-ukaldi;
ateak itxiz nai dut
Zugaz mintza beti.

Mintzoak uasten ba nau,
isilik nagoan,
uso zuri-urrama
dudala gogoan.

Arnas agor au adiz,
 sar ni barnagoan,
 Zure deadar oicn
 musikaren ioan.

Eta "Iainkoagan bal" irukotik czin at/i aldulu gabe Il'go.
 atal-puska samur ta mamitsu au:

Un`a zinun gorputz azal-ustelkorra,
 iausi zen zure etxe aragiz egina
 iru urte baino Ien. Arima zerura
 igan zen, ieizelik argi betikora.
 Labur egon zcdin ilhunpe beltz buntan.
 Oraino zu bailan adi-argirik ez,
 grazi-argia bai sort-egun bereau.
 Aingeru gazteñok crauzi zinduan
 Iaunarcn aginduz cltzaur-adarretik.
 Han geldi giuduzuu gn biok gordinik
 cltzaur-oskol barnen ondu-bitartean.
 Besle begiz ikus, beste gogoz maite
 duzu Iainko on ori. Irulan bat dena,
 (Aitagandik Seme, Biengandik Hatsa)
 aitzinean duzu, Bera den iduri.

Gero ere, *Euzko-Gogoci'n* argitaratuak, ba dilu jainkotiar
 poema ezin-obeak. Ameriketan igaro zun aldiak mesedo
 aundia egin ziolakoan nago; etorria arrotu la ernaberritu
 cgin ziola, alegia. Ala esau nion ere bein berari, cta berak
 'ori bera esaten dit beste lagun batck", erautzun zidan. Zein
 bertso autatu, ordca? BiIIa ditzadan nere ariari dagozkan
 zati ederren batzu. "Bcrraondo'ko Meza" dalakoaren aue-
 txck, adibidez, Argenlina'ko zelaiguue aundiak bide emanik:

Berraondo'ko
 elizarcn ixaria,
 ez luzc zabal,
 bainan biribil handia,
 erran nezake
 itsasoaren erdia,
 itsasoz urrim
 heldu dcuaren bidia.

...lbili,ioan,
 bcthi uagozu crdiau,
 mugarik eta
 bazterrik ez dun tokian.
 linkoaganat
 ari nizala abian,
 gcldi behar dut
 erdi-leku deu guzian.

...linkoa dugu
 girau orok erdi-lcku,
 Harcn iduri
 dcnen erdian gaude gu;
 erdi-leku hauk
 niuga bera dulc phondu;
 bi giralarik
 helgar bat cgiten dugu.

...Neurri ta neurri
 bethi uiz phondu bcrean,
 neurri ezina
 den linko azkcn-gabea;
 nihauc bcin batez
 hala niz Haren barnean;
 ari nindeke
 neurketa bethierean.

Iñoiz egin ote-da euskeraz olako bertso sakon-biribillik? Nik czetz csaugo. Biok bein, Argcntina'ko Euskal-Etxea ikaa-tctxcn gerta giñan batean —barka zaidala Bach'ek— Fuga bat jo nion ango elizako organoan. Orduan egiña du "J.S. Bach'i elizan" dalako olerki cdcr-ederra. Alda ditzadan biz-pairu bertso txaubelin:

An ari uaiz, buruz
 koral bat ausnartzeu,
 nik itzak ernanik
 azpitik kantatzen.

VERBUM CARO dugn
 elizan cntzuten;
 ark dit egunero
 belarria iotzen,
 arek clit agoa
 apur bat goxatzen.

...Asi da, ari cla
 iratcn, ariltzen,
 ekin eta iarrai
 bilbalzen, eiotzen.
 Ari-albiñua
 sei notak atonlzen:
 aiek itznl, iraul,
 iñoiz ez aspertzen,
 itokin antzera,
 biotz au xulatzen.

Ba-nago, ba-nago,
 artu dut aria,
 berriz itzuli zait
 aldien aldia,
 cta betierak
 nauka idukia.
 Betikor senti naiz
 lainko-iduria.

"Itz eta mintzo" olerkia, onela bukatzen du trinko, usti:

Mintzo denen mintzo, Aitaren ITZA Zu, sar zakida sakou
 nere belarrian. Ez dezadala nik beste zerik entzun
 bizi naizan arte xoko gorde ontan ixiltasuneau.
 Soiñu dencn soiñu, Iainkoa, belarriz dezadan oiartzun.

Eta "Eguzkia iekitzen, etziten" izeneko olerkiaren az-
 ken-puska bikain au. Oles dagio Eguzkiari, au etzitera di-
 joanean:

...Agar! Zuk dcramazu zerekiau egua.
 Lurra gorputz antzera gelditzen illuna.
 Argi beti gogoa, zurekin lagima.
 Ez gau, egiui dedilla ni iasoko nauna.

Geldi bedi nolanai gorputza; gogoa
 maitasun gorri miñez iantzirik biyoa.
 Odei beltzen makarra, obcn cn laiñoa,
 ien suntsi bedi! Zuzen Zuregana noa!

Azkenik, bere lilmruko olerki-bikluman, onela artzen
 bere betiko lcloaren aria:

Zartzarotik urbil
 oudu nai nituke
 zenbait lelo txuri.
 Zu zaitut kantagai,
 bcsle zerk cz beza
 nere griña mugi.

* * *

Labur esan, "Orixe'k berak "Itz eta miutzo'-an dioncz,
bizar asko gabe zetorkion itzak. Etorriari gagozkala, czke-
 niui ain oparo, ez miugulin, ez gilbera, bai sendo ta giartsu.
 Beti umo ta ínarnitsu ustu zigun bere bamegiroa. Ezta arri-
 Izcko, "Orixe" beti barne aldca bcgira zegola cmatcn zim,
 beti zerbaiten gogaketan, ausnarrean.

Ondarrean, aitatu dezadan nere ustez oraindik iííork aipa
 czlun gertari bat: "Orixe'k belarrietan zeramau bctibateko
 Otsa, alcgia. "Orixe" k bcrak cman zidan gcrtari orren berri,
 Cta bein baño geiagotan aitalzen du berc idaztictan. Adibi-
 de.z: 'Guregan" olcrkian, *ene ezpainak legor ta — soinuka*
belarri ela betibateko ots ontaz — eltzagor iduri. "Pampa-
 ctan izar" olerkian: *nere belarrien betiko xixlua ezin dut*
sumatu, "Itz eta mintzo'-an: belarrian — beti sorgin-soiñua
dut. Egiz ote-soiñu? Beti dit lagundu — erbesle negartiz, ze-
ruaz, oroitzen... "Betiera"-n: *nik ere ba-dut ots bat bela-*
irian beti, l. a.

Belarrietan zeraman betibateko ots orrcngatik, nunbait. "Orixe"rentzat zentzuetan entzumenen onien garaien. Ontan Donibane Gurutz'ekin batera zetorrcn. Santuak berak ematen digu orren arrazoia: izan erc, belarriz adi oi-danak "barnago egiten baitu". Zorrozkari antzematen dio Santuak aizeak belarrietan sortarazten dun bitariko oarpen oni: *ikutuari* ta *xixtu* edo soñztari, alegia. Bcrak dionenez, "belarri-xokoetan zorrozkari sartzen dan" aize-xixtuari. Doñuak ezliki ta legunki "gozaro jotzen dimcan, alako otzautsi-apetaz zegona asebetetz... orduan du gozartzen cta atscgín-artzen entzuraenak; eta entzumen-gozagallu onekin, belairiak berrizko gozagarri ta atsegin senti oi-du aize-doñuan eta xixtu an, ukimenak aize-ikutuan ez bezelako, barrcnkorrago baita entzumcna".

"Orixe"k, gañera, aizecaren eta beste sorkarien otsa baño soñu barnago bat gure baitan ba dugula esango digu:

...Aien oiartzun guziak baino
mintzo ozenagoa dut nik.
Ez nik; barnean dut Arnas Deuna;
antz oro onek du batean;
eguratsa aitzen dan eran ez da
agortzen mcnden mendcan.
Au daukat oiuz atertu bagc
ilun onen etxapean.

"ORIXE"REN METRICA

LEKUONA'TAR MANUEL
Euskallzaña

I

Besteak-beste, 1928'gn. urtcko Azaroa'ren 25'ean haku-
rrilako itzaldielan edatu /uau 'Orixe'k berc iritzi-era gai one-
t;m; Donostia'n "Euskal-esnaleak" eratu oi-zituan itzaldi ai-
pagarri aietako batean: itzaldiaren izena, "Oraindañoeko eus-
kal-neurtitzak".

* * #

Historia-apur

19.18'gn. urlea zan. Agorrillean Oñati'ko "Eusko-lkaskun-
tzaren" Batzarra izan genduan. Lenengo Batzarra. Batzar go-
goangarria cra gnztietara.

Urte areii Urrillan itzaldi bat izan nuan nik, Gazteiz'ko
Apaizgaitegian, Ikastaro-asieran. Itzaldiaren gaya, *La Mé-
trica Vasca*. Gai arriskulsua. Artean iñor gutxik ikututako
gaya.

Itzaldi ayck argitaldu egiten ziran. Eta argitalki ayetako
bat gure 'Orixe'ren eskuetaratu zan. Idazki bat egin zidan
berealaxe, zorionak emanaz, bañan bide batez akats eta
utsuneren bat nere iritziari ezarriaz.

Urrengo urtean, Durango'n Euskal-egun bat cralu zan.
'Orixe'k egun artan beste ilzaldi bat izan zuan, euskal-azcn-
tuari buruz oker ez banago. Eta itzaldi artan ncre utsune

ayek aipatu ondoren, ncre "Eusko-metrika" gañcrakoau oso beretzakotzat aitortu zuan.

Nik uere itzaldian, Euskeraren melrikari laliñezko metrikarcn jokaera erantsi nion. Latiñaren jokaera, ez erderarena: ots, euskraz ez ditugula bertsuak silabaz neurtu bcar, oñetaz baizik.

Ontan oso ncrckin zcgon gurec 'Orixe'. Oñai begiratu bcar zayela, ez silabai (1). Orla datozela clkarrekin neurri-neurn-ra gure bertsuak, ez bestela, ez silabaz neurtuta. Ori bai, guk ez geniola, latiñak bezela, ortarako silabaren luze ta Jabuv-tasunari begiratu bcar, naiz-ta olako luzc-labur zerbait arkitu al izan euskerazko silabaetan cre (orain ez bait-degu betarik guzti au bear bezela adicrazteko); baiñan, nola-nai dala, nik ez nuala sinislen laliñaren luze ta laburtasun oyck ain gauza garbia izango ziranik; arc gutxiago gurec euskerarenak, bertsoetan zeatz-zeatz kontuan eukitzcko.

Laliñari dagokion ortan azaldu zitzaidan "Orixe", nere iritziaren aurka; bayetz, latiñak —latin klasikoak— luze ta Liburtasuu ori garbi-garbi ta oso-osorik zeukala bere silabaetan.

Ortaz gañera beste zer bal ere esan nttan nik nere itzaldiau, nere gazte-urteetako berotasun artan. Arrese ta Beitia'k berc Elegietan crabiltzen zuan arnabost-silabadun neurria, latiñezko *exámetrooren* berdin-bcrdiña zala, nion nik... Adibidez:

Urten zaiteze nere agotik suzko holadak.

Ontan ere etzidan ontzat eman nere iritzia. Latiñezko *cxámetroak* bai omen-du bcstc muñarik; Arrese ta Bcitia"-ren *sei-oñekoak* ez duan muñarik, alegia. Muiu ori berak ontlotxo xurgalzen zuan nunbait Vergilio'rcn *cxamctroetan*. Ni, ordca, artean ez ortaraño eltzen. Ez bait-nintzan orduan —tn gero ere ez— bera bezain klasiko-xurgatzalle. Nik *exapodio* bat ikustcn nuan, ez besterik, bai Vergilio'ren *exameiroan*[^]

(1) Itzaldiaren asieran, gauzak errezago adicrazteko, berak ere *silcibak* aipatzcn ditu; bañan neurtitza nola neurtu esan bcar duancan, *oñetara jotzen du* bece-betean.

bai Arrese ta Beitia¹ren sei-oñekoan. Berak, ordra, ikusten zuan exainelroan beste zer-edo-zer sakonagorik.

Oyetxek izan ziran nere ta "Orixe'ren arleko gora-belie-rak gai ontan. Biok bat gentozen gañerakoan.

Latiñezko metrika

Ikuslagun orain zerlan dagon latiñezko melrikaren izaera, orla "Orixe'i-ena errezago uler dezagun.

Leutxuago esan det zerbait. Nor-naik dakian gauza da bertso klasikoan silabak ez baño, oñak baizik dirala bertsotso-ncurri. Silaba ez da oñareu gaya baizik; ots, silabaz osatzen da oña. Bañan oin bakoitza osatu ditek, naiz silaba biz, naiz iruz, naiz bakar batez. Ori bai, bertso-mueta bakoitzak bett O'ii jakiñak izango ditu: iru oñekoa bada, iru; lau oñekoa bada, lau. Silabak, ordea, izan ditzake gutxiago edo geyago. ez beti berdin; oñak eskatzen duten erau.

Aditzera eman dezaguu obeto gauza au. Latiñez *Iste Cori-/csso;*'eu bukaerako *scándere sédes* ark, *bost* silabetan *bi* oia bakarrik osatzen ditu: bata *scándere*, iru silabaduna, eta bes-tea *sédes*, biduua. Berdin beste ahapaldiko *spíritus ártus* ark çre. Iru silabako oñari *dáctihis* esaten bait-zayo (eta oin sallariña da beti), eta bikoari *spondaeus* esaten zayo (eta oi-u astuua cla).

Euskeraz cre erabilli ditzakegu olako neurriak (Baita er-deraz cre, bañan erdaldunak nayago izan bait-dute, oñareu orde-z, silaba erabilli beren bertsoen neurri): adibidez,

arpegi edcr errañotsua.

'Arpegi" *dáclilus* bat da, eta "edcr", *spondáeus* (edo-ta, na-yago badezutc, *dacílilus* eta *spondáicus*). Eta berdin, baita, "erraño-" *dactílicus*, eta "~tsua", *spondáicus* (2).

(2) Irakurleak ikuslen duan bezela, euskerazko bertsoai buruz ari naizcla, ez det aipatzen, ez *espondeorik*, ez *daktilorik*, *espondaiko* ta *daktiliko* baizik. Enskraz ez dago silabactan luze ta laburtasun naikorik, olako gauzetarako, latin klasikoan bezela. Latin *decadente* zalakoan ere cz bait-zegon; orrelaxc sortu zan, daktilo ta espondeoren oidez, iru-koctan *pes dactilicus*, cta bikoetan *pes spondaicus* esateko oitura; eta nik cre olaxe esango det, *espondaikoa* ta *daktilikoa*.

Era ontan ncurtuaz, euskeraz, Iparragirre'ren *Ume eder bat* (eta bcrdin *puntu luzeko bertso guztiak*) *Ume eder bai au*, lau oñcko bcrtsua da; cz arnar ta z-ortzi silabadun bcrtsua (erderaz neurtuta izango litzaken bezela). Lau oinduna. L?ne *edcr bat*, bi oin; ifcusi *nuan*, beste bi; guzitara, lau oirt. (Amar silaba, bañan lau oin).

Orain, ari oni jarraituaz, beste gauzatxo bat ere ba'dcgu cmcn esan-bearrik: kaula onen urrengo errenkada ura (*Donoslia'ko Jcalean*), bere zortzi silaba ez geyagorekin, beste]iu oñeko bat dala; amarrckoa bezelaxe, bera ere lau oñekoa; onela: *Donostiako* bi oin, eta *kale-* beste oin bat, (iru) eta (laugarrena) *-an* beste oin bat, silaba-bakardun oña, oin *lrin~kotua* esan oi dana, silaba batean bircn edo iruren balioa duana, errenkadaren bukaeran dagolako dagokion indarrez, gcro esango degun bezela.

Neurkera onen bitartez askotaz ere obeto ta errezago uler-tzen bait-da, nola ain ondo alkartzen dan amar-silabadun bat, beste zortzidun batekin. Silabaetan duten ez-berdiutasuna-arren, biok senideak bait-dira, biok bixkiak: biok lau-oin-dunak.

Auxe zan gure "Orixe"ren metrikaren oñarria. Eta ori csatean, ez diot besle auxe besterik: "Orixe" k ritmoari jarraitzen ziola beti; ritmoak zeramakiala bere bertsogiñan, ritmoari begira jardun oi zuala bere lauean, ritmoari, es 6l-lfibai. Beti ere oñai zitxckola. Izan cre, ritmoak oñez egi-ten bait-ditu bere urratsak, bere ibilli guztia: iruko oin ariñez, biko oin astunez... Musikak egin oi duan bezela... konpasean, rilmoan... Orregatik dira "Orixe"ren olerkiak ain musika-izacradimak, musika-anlzckoak musikalak. Ez ordca musikaren gañcan egiñak diralako, musikak eta bertsoak, biok berdiu-berdin, ritnioari jarraitzen diotelako baizik...

Oin trinkotua

Argitu dezagun orain, arako oin trinkotuaren eskubide clalako ura.

Oin bakoitzak bi ime dilu, bi zati, bcre izaeran. Lenengo uneari, *une indarduna* esan oi zayo, eta bigarrenari *une ar-*

gula (3). Ots: 'oña" esan oi deguna, obelo esaieko, *urratsa*. pausua, da; ta *urrats* bakoit/ak, edozeñek dakian bezela, li une ditn: bata iudarduna, oñak lurra ukitzeu duanekoa. eta beste argala, jasotzen dauckoa. Orain, bertso bat bukain diteke naiz une argalean, naiz indardunean; unc indarduuean bukatzen danean, bertso zorrotza esan oi diogu, eta bestela. berriz, berlso *laua*. Orain ba, bertso zorrotzarcu azkcneko silaba bakarrik, oin oso bal balio du, ots, bi cdo iru silaba. Oin *trinkotua* da. Orixe da guztia.

Adibidez, *Ume eder baten* bigarren ei'renkadan ikusi degun bukaera (*kalean*), bukacra zorrotza da. Orretxegatik dn } i silabaen balioa -an bakar orrck. Oin *trinkotua* da.

Biren balio au, ez da gure gauza bakarrik, bertso-nmeta guztieua baizik. Begira erdcrazko romantze-troxu oni.

Hélo, bélo, por dó viene
el Infante vengaór...

Bigarren errenkada au, bertso zorrotza da, eta orregatik, ez lencngoak bezela zortzi silaba, zazpi bakarrik ditu; bañan zazpi oyck zortziren balioa dute; azkcneko silaba -dor ori trinkotua bait-da, eta berak bakarrik bi balio ditu.

Bcrdin baita, beste latíñezko onlan ere:

Visus, tactus, gustus,
in Te fallitur,

Beitso au iru oinduna da; eta iru oñetan sei silaba sartzen ditu bertso *lauetan*; bañan bost bakarrik dilu bigarren errenkadan; ala ere seiren balioa du, azkcneko -tur ori trinkotua dalako ta berak birren balioa dualako (4).

(3) Ba'dakit zenbaitzuek, gregorianistai jairaitiaz, nayago izaten dutela une indardun ta tme argalaren ordcz, antziñako *tesis* ta *msis* esatea; bañan nolanai dala, tesis dalakoaren gañean etorri bear omcn-du *ictus*, ots, *piku* dalakoak, eta piku ori indar-gauza ez ote-dan-cdo-ta, nik beti ere *une indardun* (*tiempo fuerte*) ta *une argal* (*tiempo débil*) esaten jarraituko det lantxo ontan, errezago alkar aditu dezagun. Jfikiñaren gañean,

(4) Gauza jakiña da, itz esdrujularcn azkencko silaba, gutxi edo geyago, azentoduna dala, ritmoaren berezko bearrez. Orregatik laluiak, itz *agudarik* ez dun e/.kero, bertso zorrotzak esdrujula batcn bitartez

Ritmoaz zerbait geyago

Ikusi dezagun orain, sakouago, ritinoa dalakoaren izaera. Ritmoa, itz-errenkadak barru-barruan daraman *zer* bat da, misteriozko *zer* bat; *zer* orrek itz errenkada. atal txikitan —ots, *oñetan*— zatitzera bultzatzen bait-gailu. Obeto esateko, ilz-errenkadaren *zer* ori, itzetan baño areago gugan dagou *sen* bat da; eta gure *sen* orrek bultzatzen gaitu ilz-errenkadaren zatiketa egitera.

Lentxuago aipatu degun oin bakoit/.aren *nne indardun* cla *une argal* orren bitarlcz ikasi dezakegu orain nola "era-man" bear dan bertso bakoilzarcn ritmoa: *une indardunaren* ondotik, *une argala* dator nai-ta-ez; beli ere gogoan eukiaz oin daktilikoan, *une indardimaren* ondotik bi argal datozela, eta argal oyek azkarrago esan oi dirala gañera (ortan bail- (i)ago daktilikoaren arintasua, zaldiarcn *trákatan* iduri): aiderantzira, berriz, oin espondaiko batean, indardunaren ondotik argal bakar bat datorrela, eta berau asliro ta astun esan bcarra (astoaren *traha-traka* iduri, edo Irenarcn *fafa-fafa*).

Ontatik atera ditekencz, bertso guziia daktiloz osatzeu bada, bcrloa oso ariña izango da: adibidez *Sacris* .so/em/íiis bezela. Guztia espondaikoz osatzen bada, berriz, bertsoa astuna izango da; adibidez, *Dies irae* bczela. Daktiloa ta cspondeoa, alkarren txandan erabiltzen diranean ordnan da bcrloa benetan apaña; adibidez, *Iste confessnr.* edo *í/i (j)tieant laxis*.

Vergilio'ren examctroak txandaka erabiltzen dilu daktilo to. espondeoak, eta izan ditcken askatasunik ederrencan gañera, azkeneko bi oñetaraño; bi oin oyetau, nai-ta-ez. daktilo-espondeo alkarren ondotik bait-ditu crabilli bear bertsc. bcrarcn izaera jalorrez. Eta ontan dago, ain xuxen, bestclakotasun aundia, Vergilio'ren eta Arrese ta Beitia'ren artcan:

egiten ditu. Adibidez, gure troxu ortan, *falliur'en* bilartcz. Bukaerako —*tur* ori, gutxi edo geyago azentoduna da, eta beragatik bertso ori, bertso zorrotza. Berdin gcrtatzen bait-da Elizako himnorik geycnetan; l'iikaerako esdrujularen indarrez bcrlo oyek bertso zorrotzak dirala.

Arrese'ren sei-oindunak txanda au beti ere berdin eramaton Laitdu (daktoliko-cspondaiko, dakliliko-cspondaiko, alegia); exametroak, ordea, esan degun askatasunean.

Etena edo zesura

Beste beslelakotasun bat ere ba'dago bi neurri oyen artcan: Arrese'ren sei-oindunak beti cre iru pusketau eratzen dira; iru pusketan, bi eten-aldi cdo zesuraen bitarlez, zesura bakoitza bigarren la laugarren onñaren ondolik dalovre ia. Beti ola.

Urten zaiteze / nere agotik / suzko boladak.

Beti ola izale onek, mouotonia ematen bait-dio bevlsoari. Bcti lcku bevean zesura cgiñaz, alegia. Lokartugarri dirala olako bertsoak csan oi zuan askotan "Orixc"k berak, loavgarri dirala. Bañan ez bait-du olako legerik latinezko exa-
metroak...

Monotonia auxa bera arkitzen ziou "Orixe'k *puntu luzc-hc* ta *punlu motxeko* bertsoai. Puntu luzean beli ere zcsura bat egiten bait-da, ta beti leku berean, ols, lenengo evrenka-
tiako bi lau-onñkoen artcan; eta ala berean daktilo-cspondeo-
ren txanda etengabez osatzen bait-da oin bakoitza... Beti bev-
din ibiltze au, "Ovixe"vi loavgavvi egilen zitzayon. Bañan ala
ere, bcrs Poenian oparo erabiltzen ditu bi puntu oyek, luzea
ía motxa. Kanturako egin bait-zuan bere "Euskaldunak"; eta
kanturako oso egoki ta erabilgarriak bait-dira bi punlu
oyck; kantuak, bevviz, bestalde, edevki-asko kcntzen dio
loargarritasuna, kantatzen dan bertsuari.

Bertsomuela bat zuan "Orixe"kc bcin cvc gaitzetsi etzua-
na: *Uso txuriarena*. Izan ere, *Uso txurian*, ezertan bada-ta
anlxerabiltzen bait-da egoki daktilo-espondeoarcn txanda-
kela. Bcrtso *zorrotzeko* bi punturen ondorcñ, bertso *lau* bal
daktilo-espondeo, daktilo-cspondco dun bcrslo laua. Bertso
lau onck ats-aldi gozoa ematcu bait-dio lenengo bi *zorrotzen*
vitmo berdin-antxari, berriz ere lengo bi zovrotzetan buka-
izeko. Oncla:

Uso / Ixuria / erra- / -zn:
 uorat / joaiten / zireu / zu?
 Espai- / -nia'ko / porluak / oro
 elurrez / beterik / ditu- / -zu.
 Gaur gabe- / -rako / osta- / -tu
 gure / etxean / ba'de- / -zu.

ikusten duzu goizean ere izaera beretsoko neurrikoa da, eta orregatik ain atsegiña, besteak bcste. Bai kantalzcko, bai csateko ere. Nola-nai dala, *Uso txuria* zuan oso maite gurc "Orixe"k...

Silabaen ez-berdintasuna

"Orixe"rentzat estetika-gauzetan lcge bear-bearrekoa beti ere aldaketa da: betiko bcrdintasuncan ibilii gabe, aldalu, aldaketa txiki bat cgin... bcrriz ere lencra biurtzcko; bañan aldatu. Ez bcti cspondco, ez bcti daktilo; biok txandaka baizik, bañan txandatzca bera ere, ez beti neurri bcrcan, nahaste pixka batean baizik. Atsegingarri, ez nekagarri.

Ganza au argiago uzteko, esan dezagun besle zer-edo-zer geyago.

Esan ere degu-ta, bcrtsuetan baMira bertso daktilikoak, ots, beren rilrnoa irunaka daramakitenak: bañan ba'dira, baita, biñaka daramakitcnak ere, ots, espondaikoak alegia. Erderazko *Romancea* beti ere biñakako ritmoan ibilli oi da: baita latinezko *Dies irae* eta *Ave, maris Stella*, ta *Adoro Te devote* eta *Pange, lingua, gloriosi* erc. Ez noa gauza sakonik emcn esatera. Bcgo gauza ontan. Biñakako ritmo ontan beti ere oñak silaba jakiñak dituztc: *Ave, maris* SíeZ/a'k eta *Adoro Te*, cZefOíe'k sei silaba (5); *Dies* nae'k zortzi silaba, eta berdin *Pange, lingua, gloriosi'k* ere. Eta beli berdin. Bañan ljertsoa daktilikoa dancan, ez du silaba jakiñik izango; daktiloa espondeoarekin nahastuaz, cspondeotan dabillenean, bi silaba emango ditu oin bakoitzean; bañau daktilora igaro-

(5) *Adoro te devote* onek, ain nxnen, lenengo errenkadan, ez sei silaba, zazpi baizik ditu, lenengo A— ori *aiiacrusis* bat dalako; gero iknsiko bait-degu, anacrusis dalako ori zer izan oi-dan.

tzen dancan, bat geyago, iru. Gauza au, bertsoa silabaz neur-tzen dutcnentzat eslopozo ta debeku aundia da. Bañan ber-tsoa oñez ncurtzen duteucntzat, ez da olako estropozorik. Si-labak bcrdin-ezean banatuak izan arren, oñak beti berdin iza-ten bail dira olakoctan; silabak gora-behera, oñak bcti bcr-din...

"Orixe" k ori ondotoxo ikustcn zuan. Ncronei bcrarekin gertatu zitzaidanak erakusten dti au edcrkitxo. Durango'ko bere itzaldian izan zan. Artcan nik argitaldu-berri nuan Gaz-teiz/ko Aldizkari batean Arantzazu'ko Amaren Burestiin-ja-yetarako Imno-gailxo bat... ez bait-dakit asiera nola zuan, bañan bai bukaera. Bukaera ortan nik —daktiliko ta es-pondeikoaren legcari jarraituaz— silaba ez-berdiñetan buka-tzen nuan nere Imno-gaya. Onela:

Zure / itzal / gozo- / -a
itsaso- / -raño / ema- / -zu,
Arantza- / -zu!

¹"Orixe" k bere itzaldi arlan, oso ondo cratutzat aitortu zuan nere Imuo-gai ura.

Irakurtzalleak ikusiko duan bezela, Icnengo errenkada, bi silabazko oñez dijoa (*Zure / ilzal / gozo- / -a*) cta guzira zazpi silaba ematen ditu; bañan ondotik datorren crrenka-dak, silaba bat gcyago, zortzi ematen ditu, tartean oin dak-tílico bat sartzen *hait-dn(itsaso-)*. Bukacra-bukacrako *Aran-Izazu* ori ere, daktiloduna da, bi oindun daktilikoa lau sila-batan: lencngo oña, *aranlzur-* (daktilikoa), eta bigarrena *-zu*. •oin zorrotza, im añako silaba bakarra/, osatua, oin trinkotua.

Oin espondaikoen artcan, gogoak emateau daktilikoren bat nabastea, azaltzen da, baita arestian aipatu degun "Uso txurian" ere. Ikus bertso apain orlan, laugarren errenkadan, arako *elurrez beterik* artau, bi daktilo elkarren ondotik, bes-te bere antzekoctan ez bezela; beste bere antzeko oyctan lau cñck zortzi silaba ematen bait-dituzte, bañan cmcn bat ge-yago, bederatzi... (silabaz neurtzen dutenentzako cstropozo,

eta *verso libre* dala esaji bear, ain ondotxo neurlu ta 'Lotua izan arren...).

Izaera daktilikoata izaera espondaikoa, nundik?

Len ere esan degu-ta, ritmoa alde batelik gudan dagon se?i batek sortzen du itz-errenkadan; bañan bestetik, itz-errenkadaren barru-barruan dago kokaturik. Itz-errenkadaren barruan dagon *zer* misteriozko hatek —ari mehe-mehe hatek— ematen dio gure senari, itz-errenkada artan espondeak eta daktiloak ikusteko oñarri, eta ola itz-errenkada espondeotan eta daktilotan zatitzeko bide.

Ikus dezagun sakontxeago zer dan itzen barruko *zer* ori. Ortarako ez degu hide egokiagorik topatuko, umeak erahii-tzen dituzten jostaketako kantutxuak baño. Umeak izugarri riUno-zaleak ditugu txiki-txikitandik. Ikus dezagun ritmo oyetan bat edo beste, gero andik argi pixka bat ateratzeko.

Adigarri bat:

Arre, arre, mandako:
bigar Tolosa'rako,
etzi IruñeVako...
—Andik zer ekarriko?
—Zapata ta gerriko.

Biñakako ritmoa du (espondaikoa) jostaketa onek: iru espondaiko ta oin trinkotu bat. *Arre / arre / manda- / -kó / bigar / Tolo- / -sara- / -kó* etab.

Beste adigarri bat:

—Xango, mango: Aurra nongo?
—Ona bada, etxerako;
gaiztoa bada, kanporako.

Biñakako ritmoa du jostaketa onek ere, lenengo bi errenkadaetan; baña irunakako hat (daktiliko bat) sartzen du irugarren errenkadan: *Gaiztoa*. Eta ez du trinkoturik.

Beste bat:

Pbirun, phirun, ardatza...
Astean, astcan, niataza;
illean, ilJean, pieza.

Lencngo erreokadau, dana biñakakoa du onek ere; bañau l)igarren ta irugarrenean, irunakako bi ta biñakako bat; cta bnkaerau oin trinkotu bat. *Phirun / phirun / arda- / -tzá II astean / astean / mata- / -zá II illean / illean / pie- I -zá..*

Bestc bat:

Nere eskn makurra...
Arrieta'ko txakurra...
Neri ematen ez didanak,
zazpi kanako zinlzurra.

Au cie, Jeuengo crrenkadan, lnñakakoa da; bigarreanean, o:dea, leuengo ilza irunakakoa du; irugarrenean, erdian, berriz ere irunakako bat; eta berdiu laugarrenean ere; eta JDU-kaerak (irugarren errenkadakoa ez beste guztialç) trinkotuak ditu. *Nerel / esku / maku- / -rrá // Arrie- / -tako / txaku- / -rrá // neri / emalen / ez di- / -danak II zazpi / kanako / zintzu- / •rrá.*

Bestc bat:

Kuku, miku; kuku, niiku...
txoriak basoau umeak ditu.

Berriz ere asieran lau biñakako; bañan bigarren errenka-c'an, iru irunakako (iru daktiliko); eta bukaeran ez oin trin-Jíoturik. *Kuku / miku / kuku / miku // txoriak / hasoan / timeak / dilu.*

Beste bat:

Joxe, moxe, kitarra...
Auntzak añako bizarra;
zopa gutxi jan-da
gizon kaxkarra.

Asieran, dana biñakakoa; bigarren errenkadan, erdi-erdian, irvmakako bat; irugarreu errenkadan gauza berri bat: Lukaeran bi oin trinkotu elkarren ondoren; beste bukaera guztiak, oin trinkotu... *auntzak / añaño / biza- / -rrú // zopa / gutxi / jún- / -dá // gizon / koxka- / -rrá.*

Beste bat:

Atxio, matxio, komio pan...
Nere semea errolan...
—Errotara ninjoala,
topatu nuan erbi bat,
kendu nion begi bat,
para nion berri bat...
Errota pio, klak, klak...

Jostaketa ontan ba'dago guzitik: *Atxio / malxio / komio / pán:* iru irunakako ta trinkotu bat; *tiere / semea / erro- / -tán:* biñakako bat, irunakako bat, biñakako bat eta trinkotu bat: *Erro- / tara / ninjo- / -ala:* lau biñakako, trinkoturik gabe; *topatu / niutn / erbi / bál:* irunakako bat, biñakako bi, cla trinkotu bat; *kendu / nion / begi / bút //* *para / nion / berri / bál:* dana biñakako ta trinkotu; eta bukatzeko, *errota / pio / klák / klák:* irunakako bat, biñakako bi eta bi trinkotu elkarren ondoren.

Beste bat bukatzeko:

Eragiozu eskutxuari,
cskutxu eder Lorelxunari.

Jostaketa ontan arkitu dczakegu beste gauzatxo bat ere: *anakrusis* csaten zayona: ritmoa asi baño lenago, asierako silaba askatu bat. *E- // -ragio- / -zú II es- II -kutxua- / -rí //* *es- // -kutxu e- / dér H Lo- II -retxuna- / -ri:* *Anakrusis* eta irmiakako bat eta trinkolu bat, lau aldiz berdin...

Ori bai: jostaketa au neurlu lilekeala beste era balcra ere, ots, *anakrusis-ik* gabe: *Eragi- / -ozu / eskulxu- / -ari //* *es-hutxu / eder / Loretxu- / -nari...* Irunakako ta biñakako, beti berdin, trinkoturik gabe.

Ikuslcu daucz, umeak oso atsegiu dute ritnioa, bear bada, melodia bera baño atsegiñago. Eta zer erakusten digute umeen ritmo oyek? Auxe, beinlzal, leuengo-Icncugo: itz-errenkada guztia biñakako edo irunakako zatitan eratze ori, ilzaren beraren silaba-izaeratik sortzen dala. Bi-silabadun itza, oso aukerakoa da espoudaiko bat, ots, biñakako oin bal eratzeko (*arre-arre, xango-mango, phirun-phirun, Joxe-mo-le*). Ala bcrean, iru-silabadun ilz bat, oso egokia izango da, dnktiliko bat, ots, irunakako bat eratzeko (*gaiztoa, astean-astean, kanako, errota, Arrie(tako)*). Eta olaxc gañcrakoan. Adibidcz, laukoa dauean, bi espondeo (*erro- / -tara*); bostckoa danean, daktilo bat ela espoudeo bat (*Arrie- / -tako*); irukoa danean, ordea, ta errenkadaren bukaeran arkitu, egin dileke beste gauza bat ere: espondeo bat, eta oin trinkolu bat (*manda- / -kó*); berdin, baita, bostckoa izan cta bukaeran arkitzen danean, egin ditzke bi espondeo ta oin trinkotu bat (*Tolo- / -sara- / -kó*).

Rilmoa olaxen eramana osatzen dira, arako , beste norbaitek csandako *musikalilale* apur duten olerkiak.

Gañcrakoan gurz "Orixc zauari iñoiz entzun izan nion, ilzaren silabaizaerari bcgiratu bcarra zegola, gurz ritmoa oudo eratzeko, biñakako ta iruuakako oñak ondo cratzeko, alegia... Latíñez Ian orlarako silaba bakoitzaren luze cdo la-burtasunari begirutzen zioten; guk, ordea, ez daukagula olakorik —bat ere ez, edo agitz gutxi— eta beragatik itzaren silabaizaera izan bcar dcgula ortarako gidari: iru-silabadura, oin daktiliko bal cgiteko; bi silabaduna, espondaiko bat egiteko, etab. etab.

Orlatik landa csan bcarrik cz dago olerkariak berak aukeratzcn dituala bere olerkiari dagozkion rituioak: edo-ta daktiliko asko duan ariña, edota espondaiko asko duan astana. *Gayavi dagokion ueiuvian*.

Dies irae ta *Stabat mater dolorosa*, biñakako oin aslunez dabilta, oin espondaikoz, gayak berak ala eskatzen dua-lko, gai illuna darabilkitelako. *Sacris solemniiis*, berriz, irunakako oin ariñez, dakliliko zabil. Berdin baila *Sanclorum .ierius inclyta gaudia* ere.

Anlziñako gure olerkariak, kantuan asi baño lenago, adierazten zuteu zein[^]nolako oñetau kantatzera zijoazen, alako *Lelo-lirelo, leloa zarak, il leloa* aren bitartez. Nolanai dala. asi-ta berealaxe igertzen zayo olerkariari nolako oñetan deramakian bere kanta... dantzari onak soñuaren lencngo konpasetatik igertzen dion bezela soñuaren ritmoari. Berealaxe.

Baia bere gauza bat ere bai[^]degu esan berearik bai onixeburuz: gure artzako berztorik geyenak ritmo daktilikoan dabilzala, eta daktiliko-eran neurtu bere dirala. Ikusiko ditugun, "Orixe"ren guztiak daktiliko dira.

Puntua; rima

Rimari buruz ez noa ezer aundirik esatera. Ori bai, aldiz-aldiz bai[^]dakiala rimarik gabe olerkiak egiten gure "Orixe"k, gero ikusiko degin berezela. Ez askotan. Bein-edo-bein.

Gaierakoan oso zorrotz erabiltzen dnala puntu edo rima-kontu ori bere olerki guztietan. Zorrotz, ondo biribildua. Puntu ederra, ondo aukratua, ez Bidasoaz aruzko batzuek erabiltzen duten askalasmiez, baizik-eta emcngo aldetik Otaño[^]k eta Xenpelar[^]en eskolakoak erabiltzen duten bezain zezt. Aukerakoa; aukeratua; bai[^]an ez murriz. Oparoa, oso oparoa. Parra-parra dariola dirudina. Arrigarri benetan. Ezinik gabe. Beti errez, beti oparo.

Eta ikusi ditzagun orain banan-banan bere olerkietan erabili zituan neurriak.

II

"ORIXE"REN OLERKIEN NEURRIAK

Esau berearik ez dago, or ikusi ditugun ritmoez gñera eta ritmoak osatzeko itzen joskeraz gñera, beste ritmo ta joskerak ere bai[^]dirala, eta bai[^]dituala "Orixe"k berek ere olerkietan.

Asi gaitezen bere "Barne-muñetan[^]dik. Puntu luzek ta pun-

tii molxa, ots, zortziko aundi ta zortziko txikia, biok erabil-tzen ditu bere olerki liburu egoki osatutako ontan. Ikus di-tzagun eta neurtu, Ien erakutsi degun eran. Eta lenengo, "Gugan"; puntu motxa.

Regi ra:

Arnas Sainduak gaitu
gn lauretze bizi...

Esandako neurrian, puntu motx oyek, tripodio daktiliko dira, ots, daktiliko iru-oñckoak; lenengo errenkadak, dakti-liko bat eta bi espondaiko bait-ditu (ola, naiz atzekoz aurre-*rn* ipiñiak); eta bigarren errenkadak, daktiliko bat eta es-pondaiko bat, eta oin trinkotu bal.

Onela: *Arnas / Sainduak / gaitu // gu laure- / -Lxe bi- I*
zÍ.

"Ezagu-argi", puntu luzea.

Begi ra:

Ezarri duzu neregán, Iauna,
Zure aurpegi-argia...

Puulu luze oyek, tetrapodio daktiliko dira, ots, daktiliko lau oñekoak; Icnengo errenkadan, daktiliko bat ta espondaiko bat (edola beste aldera), eta zesura; eta gero. beste dakti-liko eta espondaiko (edo-ta beste aldera); eta bigarren errenkadan, espondaiko bat eta daktiliko bat (edo-ta beste aldera), eta espondaiko bat, eta oin trinkotu bat.

Onela: *Ezarri I duzu I enegan / Iauna // zure / aurpegi /*
argi- / -á.

* * *

"Aldarean". Tetrapodio daktiliko, jarraitu-jarraitua, pun-
tn luzearen bigarren errenkadarik gabe.

Kristo'gan dugu Iainko betea,
ostian Kristo betea dugu...

Tetrapodio daktiliko, ots, lau-oindun daktilikoa: lenengo errenkadau, daktiliko bat eta espondaiko bat (edo-ta beste aldera) eta zesura; ostera ere espondaiko eta daktilikoa (edo-ta beste aldera); eta ola gañcrako errenkada guztietan berdin. Ez oin trinkoturik, ez rimarik.

Onela: *Kristogan / dugu / Iainko be- / -tea // ostian t
Krislo / betea I dugu.*

* * *

Siñestea bearreko gauza dugu,- ez, gurasoen ondare dugulako bakarrik —au ere gogoan artzeko da arren—, bañan egia ta egi ederra dalako, eta gizartean ondore onak ematen ditulako. Siñeste ori ukatzetik edo zabar erabiltzetik, zer dator? — Lapurreta, lizunkeria, eriotza, edo gutxienik, alkar ezin ikusia.

Kristautasuna gauza ona da, esan dezake oietako norbaitek, bañan ez ote litzake komeni pixkaren bat aldatzea gaurko egunerako? Ez ote genuke zertxobait oraingotu bear, zenbait Jaztasun akle batera utzirik? Edozein bizipidetan, ba-dira gaur cre gulxi edo nsko, lengo kristautasunari eusten diotcnak. Ba-dira gazte onak, nagusi onak, langille onak, ez baitute zar arkitzen bi milla urte ditun kristautasun au. Ala ere ba-dute lanik aski on izaten. Zer itxaron dezakegu, erdizka besterik kristau ez dan arengandik?

Ebangelioarcn araura bizi danak, kristau epel cz baña zintzo danak, gero ta berriago arkitzen du erligioa. Ez da artaz asperetzen, ez da eneatzten. Bere eginbideak laztasunean bete bear ba'ditn ere, ba'ditu pozaldi aundiak: «Nere uztarría leguna da, dio Yesukristok, eta nere zama ariña». Erdizka dabiUenak ez du olako pozaldirik sumatuko, goibel ibilliko da, bañan bete betean kristaubide ortan sartzen danak, alako zoztorrik ez du arkituko. Burruka da gizonaren mundu ontako bizia. Aurrenetik txil egiten duna, galdua dago, bañan azkeneraño dirauna, ua sartuko da zeruetan.

Sar gaitezen, bada, bcro bero, egiazko gizabide ortan. Ez gauden nagikeriz, bai-nai, ez-nai, nagitasun ori luzaro iñarrausi gabe. Ba-doaz bi gizon itsasoan basitu bat artzera. Bata, crantzita bereala, arkaitzetik yauzi cgiñik, urean pulunpatzen da, cta gaiñera aterarik, igeri ari da lasai. Bestea an dago erantzi ondoren arkaitzaren gaiñean, kuzkur, bizkarra konkortuz, eskueri igurtzika, larru-azala oillo lumatuarena dirudiola. Okerrago, berriz, oiñez ur-crtzeraiño yoan eta beaz-muturrak sartzen asten dana. Polikiegi asten danak, asko berandutzen du gorputz osoa murgiltzcrako. Zenbat arnas estu! Zenbat otzikara igaro bear du! Azkenean, ura otza dagola-ta, ia ez ote dan gelditzen basitua artu gabe.

Dezagun biotz! Sar gaitezen egiazko bide bakar ortan, bipil eta biribil.

DANTZA NAGUSIA

*Izluela. Gipuzkoa ko Dantzak. Donostia n Bnroja'renean, 1824.
Azkue. Cancionero Vasco. Tonio III. Dnntas Boileait Hernasco
ni. Bnrcelona.*

I. Sarrera

Iñoiz edo berriz Jagunartean bilclurik giñaudela, gure dantza etara biurtu genun itza, eta nik nere iritziak ematean, laguneri ong; zerizkien, eta gai ontaz liburutxo bat eskatu zidaten. Egia esan, ni ez naiz batez ere ortarakoa. Baiña nere bidean gertatu zaidan ezkerro, atsegin zaida, nik ikusi ta ikasi dutana, ta ala bezala, gauza adieraztea.

Ongi artu beraz, buruan, ni ez naizala tekniku; lekuko besterik ez naizala. Ortaz, nere aburuak ez dute nere diran beste baliorik.

Gure dantza nagusia zer dan edo zer zan, edo nola zan esatean, ez dago uisegiteko ainbeste bildur; baiña, zergatik au, zergiiik ori, pauso onek zer adierazten dun, beste ori zertara datoiren, eta olakoetan sartzeak arrixku aundia du. Lenbiziko ortan ez zun utsegin Iztuetak, baiña bigarreanean bai, nere ustez, nik cre utsegin dezakedan bezala. Ori dala-ta nere iritzia ez dut biribillegi aitortuko.

Orain dala ogeita zenbait urte, egunkari batean idatzi nitun sei edo zortzi artikulua gai berontaz, baiña txuri egin nun aiekin. Iñorfo ez zitzaidan etorri atsegiñak ematera, baizik eta Araba'ko neskatxa bat, bere ikastaroak egiten Madrill'en ari zana. Ori Euskalerritik. Buenos Aires'ko *Laurak Bai'ek* Polikarpo Barrena bialclu zidan, bere izenean neri atsegiñak ematera. Orrela ixildu zan nere dantza. Gero, bigarrengoz, Aincloain'en, Larramendi'ren aipuaiaietan, nere esku utzi zuten dantza antolatzea, eta, «orain gai-

tuk» esan nun nere kolkorako. Dantza osoa, ain puskalaka zebi Ilona, berritu naiean asi nintzan eta olako ta olako dantzari ipiñi nitun elkarren ondozka; baiña bi erritako danboliñak inuzift egin zidaten, eta, aiek bcren erriko bezala ari bear zutela ekarri zuten. Orra, berriz ere txuri cgin, nere aspaldiko asmoan.

Irugarren aldiz (auntzak ote-diro?) Tolosarrak lagunduko oinen didate clantzta ori Jengoratzen. Ala ba'litza, nere poza ez litzake makalal

II. Daníza Nagusi onen izenak

Len-lenago ez zun izen bereizirik, DANTZA besterik. Larromendi'k bere *Corografía de Guipúzcoa'n*, *J.a Danza* esaten dio soil-soilik. Iztueta'ren garaiean Gizon-dantza esaten bide zitzoion, baiñan ez egoki, emaztckiek ere baitute artukizun. Giza-dantza ipintzeko egon naiz, gizarteko dantzo, esate baterako; baiñan Azkue'k ola deitzen ditu gizonezko utsen dantzak eta nik azkenik «Dantza nagusia» ezarri diot.

Esaten ere zitzaion Dantza Erreala, Meza-nagusi ondoko dantza, eta abar, beti ere dantza aundikia ta nagusia zan gisan.

Beste erriren batean ere ikusirik nago ori. Orain dala ogeita bost urte inguru, Bilbao'ko *Campos Bliseos'etan* ikusi nun dantzatan-talde bat Santander'darra, Riaño'koa, oker ez ba'nago. Dantza aietan ba-zuten bat gure mutil-dantza gogorazten zuna. Antzoki-ko eginkizuna bukatzean, urbildu nintzaion dantza-maisuari eta ola galdegin nioili «Orrako dantza orrek zer izena du»?, eta. <Lu Danza, soil soilik deitzen diogu» erantzun zidan.

III. Danlza Nagusiaren puskak

Gaur dantza au berreun zati egiñik dago. Batzuk *auresku* deritzoic, zatirik cdcrrcna berentzat arturik; besteak «soka-dantza». (Azk. pág. 13, lín. 11); bcstcak «ingurutxoak»; besteak bai eto ezpotodontza ere (Berriz). Len guzia bat zala, guziak Dantza baka-rra osatzen zula, garbi aitortu diteke. Iztucta irakurtzea naikoa da. Baten-batek esan lezake: ingurutxo oiek Gipuzkoa'n Bcdaio'n, len

l.izartza'n eta Oresa'n (ncronck txikiñan ikusia), au da, napar-mugako errietan gelditu zan czkero, ez ote-da dantza au Naparroatik etorria? — Ez, Bizkaia'n erc dantzatzen zala eta ia gaklu zala Bizkai-dantza berria sartu zancan, Iztueta'k garbi adierazten du.

IV. Berrizko «Onlako urrearen daniza»

Onela zeritzaion dantza oni, ez galtzeagatik erriko Udalak mutileri urtero ontzako urre bat eman oi-zielako. Dantza bilcain au gaur itsusiturik dago. Azkuc iaunari bein baiño geiagotan cntzun niona, Berriz'ko Udaletxean bi Kuaderno bai omen-ziran Dantza ñu zearo adierazten zutenak, baiñan aietan ez omen-da czpatarik aipatzen ere. Eroak ere ikusi dezake, zortziko eder aiek Dalitza nagusiarenak dirala, ta Banako zarra ta Bana-banakoa ere bai. Txanckcrrenkua, berriz, Naparroa'ko Eskalapoin-dantza dala esan diteke. Zer naspilla! Ezpata-dantza esaten zaio gaur, baiñan arrazoirik batiere gabe. Azkue iaunari dirudionez (l. c. pág. 13). Dantza au Berriz'cn eraberritua ditcke, Zaldibi'n Jztueta'k egin zuna Berriztarak ikusirik; baiñan cz ote-zan —diot nik— Iztueta berá egiteko oitan sartu, Durango-inguru aietan bidelapur ibili zaneke orduan? Nolanai ere mingarri da. Esparta'ko dantzak guda-dantzak ziralaran zun norbaitek, eta andik artuta, gureak ere ala zirala asmatu zun eta bein baiño geiagotan esan Iztueta'k. Gipuzkoa'n ere nástu ditue axeri-dantza ta olakoak dantza eder ontan, zalduniaute cgu-p.cz bestez ateratzen ez omen-zan dantza. Alare aren soiñua zana goa irudi zait neri, ta Dantza nagusitik kenduta eramana ez ote-dan axeri-dantzara. Izan ere, zortziko osoa ta iatorra da musikaz, Uitz'i'n 5/8'an eman oi zan bezala. Egia esan, lau puntu bcrdiñak cz ditu ez; bi ta bi, elkarren bixikoak:

Espartziñak urratuta zapatarik ez,	ez
Bermeo'n gelditu nintzan oiñeko miñez.	ez
Auxen duk cgia, zortziko berria,	ia
iru txiki ardorckin librako ogia.	ia

Ba-dira olako zortzikoak beste dantzaetan ere, baiña geienetan ez da ageri lau puntu berdiñekorik. Esaterako, Ezkurra'ko makil-dantzan.

Iru xito izan cta lau galdu,	du
gure xito orien ama zerk ian du?	du
Gure xito orien ama oilloa.	oa
axariak moztu dio lcpoa.	oa

Bai eta maigañeko ezagun artan ere:

Campo Volantiñ'eko // aretxarro baten,	en
kuku batek zazpi ume // egin yozak aurten.	en
Kukuak egiñ eta amilotxak ian,	an
au bere kukuaren zorigatxa zan!	an
La ra la ra la ra la, etc.	

Zcr errik ez ote-du pekatu rik egin ontan, eta Uitz'i'ko mutillek ere Dantza nagusia enparantzan atera ondoren, erriko eLxera sartuta maigañean zortzikoak ateratzcn iardun oi zuten. Ortaraño begirapena galdu zitzaion gure dantza oni!

V. Daníza Nagusia nere begielan

Nere iaio tcrrian lenbizi, mutiko nintzala, orain galdu ba'da ere, naiz Naparroako danboliña zckartela, Ebaristo Elduaie n, naiz Lizartza'ko giputza, J. Antonio Arotzena, soka-dantza'tik asten zan, gizon utsekin. Mutillen zubia, Desapioa ta Erreberentzia bukatu rik, neskatzak serbitzen ziran soka-dantzaren tun-tun berean, Inguru-txoak asterako. Iztueta'k ere era berean dio. Zubiak eta zortzikoak egiñik, eta geldi-deia iorik, lenengo tun-tunean itzultzen zituten neskatzak beren tokietara, eta onela bukatzen zan dantza. mutillak erriko ctxera zoazela.

DESAPIOA. Tarte ortan ematen zan desapioa, deirik io gabc, bere gisako tuntunean. Tun-tun au bere esku du, ots, nai dun bezala doala esan diteke alde batera, baiña bestera, xuxen ioango dira, bai danboliña, bai dantzaria, galtzeko bildurrik gabe. Au da, Altubc'tar Seber iaunak ederki dionez, gure dantzarcn txirlarririk baliotsucna. Ausaz au bakarra gelditu zaigu lengo dantza zár aietatik.

Irugarren zubia? — Berriz'ko zortziko a gogoan artu rik, eta oraindik tun-tun ori Lizartza'n cmaten dala ikusirik, uste izatekoa

da Dantza Nagusi orrek ba-zitula irugarren zubia ta zortzikoak, edo aiek erauntsita ere, ez lukela gaizki cmango.

Dantza nagusia zearo nola zan adierazi baiño len, csan deza-dan zerbait beste dantzaetaz.

VI. Gizonezko ulsen danlzak

Auek dira iatortasunik garbienean irauten dutenak: Mutiko edo mutil-dantza, dantza luzea, zazpi iauziak, taloak, Saraitzu'ko dantzak, ardo-dantzak edo iñautcrikoak. Gure dantzak zuzen sailkatzearrisku aundi xamarreko gauza litzake. Azkuek bcrak ere, mutil-dantza soka-dantzara biltzen du, ta almute-dantza maigañekoe-irra; biak oker, nere ustez. Nik egin dutan sailketa au da:

1) Dantza Nagusia (gizaki cmaztekiena); 2) lan-dantzak (gizaki-ema/tekienak); 3) iñauteri-dantzak; 4) makill eta ezpata-dantzak,- 5) gizonczko utseen dantzak.

Lan-dantza oiek galdu dira. Sagar-dantza berritu da gure egun nuetan; ikus Azkue'rencan (II, 58) tipula-iorra, eta arta-iorra Obid. pag. 25). Uste izateko da auek ere len ugariago zirala.

Iñauteri-danlzak edo ardo-dantzak bitarakoak dira: mordoan dantzaízekoak, eta bi lagunek begiz-begi elkarri begira. Lenengoetakoak. kadiradantzak. gerriko-dantza, cskalapoin-dantza, t. a.: bigarrenetakoak «Matsaren orpotik», «Sagarraren», eta «Aldapeko». Azken auek almute baten gaiñean dantzatu oi ziran, bi dantzariak elkarren bekoz-beko, basoa bete ardo, eskuiñeko zangoa beti aidean, dantza bukatu arte. Itzak arnas batean esan bear ziran. Galtzen zunak ardoa pagatu bear zun.

Bizkaitarren «Matsaren orpotik» onek, ogeita bost neurri edo kosketako ditu; «Sagarraren», naparrak, emcrtzi, ta giputzen «Aldapeko» onek emezortzi. Iduritua artuta nago bizkaitarrena luzee-gia ez ote-dan, eta *klink* ori geroztik sartua dala.

Matsaren orpotik dator mama gozoa,
edango neukela beterik basoa (biz). (tarteaz, *klink*)
Zuk niri, nik zuri, agur egiñaz alkarri
basua txit garbi bear dogu ifini.

Sagarraren adarraren igarraren
 puntaren puntan
 txoriñoa zegoianan kantari.
 Bai, txiruliruli,
 Ez. txiruliruli,
 nork dantzatuko du soiñu ori?

Aldapeko sagarraren
 adarraren puntan,
 puntaren puntan,
 txoria zegoen kantari.
 Txiruliruli,
 txiruliruli,
 nork dantzaíuko ote digu
 soiñutxo ori?

VII. Almuíe-daníza ía maigainekoak

Bi dantza mota auek zertan bereiztcn dira? Maigaiñekoetan dantzariak ez dula ardorik eskuan, dantza bitartean: eta gero, maigaiñekoak luzeegi dirala arnas batean esateko. Ikus Azkue'k bestera diona (l. c. pág. 10).

VIII. Dantza iauziak

Erabat esan, gizonezko utsen dantzak aski ongi dantzatzen dira Euskal-errian; baiña iauzi auetaz zerbait esan bearrean nago.

Zazpi iauzietan, dantza larratzaren gaiñean baldin ba'da, utsak Cítaltzcñ errez da, aietan ez baita entzuten dantzaria nola erortzen dan,- baiñan oltza baten gaiñean dantzatu ezkerro, an bai garbi agertzen dirala!

Gogoan daukat ncñ Baiona'n gertatua. Bidarraí'ko mutillekin bialdu ninduten norgeigoka batera. Zezen enparantzan genun de-ma. oltza baten gaiñcan. Aurretik Baionako txoko batean saiatu genitun iauzi auek. Lenbiziko bi iauzietan aski berdin erortzen ziran, baiñan irugarren iau/ira orduko, *tarrapaían* egiten zutcn,

oraingo Lxinparta-tiro oiek bezala. Iauziak alde batera uzteko esan nien, eta, ausaz, orregatik atera gcnun lelengo saria.

SOMALITARRAK. Ikusi ta ikasi. Praintzi-mendeko gudari batzuk egon ziran Bidarraí'n, mugazai, alditxo batean, ni an gertatzen nintzala. Alako iauzi egillerik cz dut ikusi. Aiek ez dute danboliñik, ez zaldabairik; txaloz cta orpoz adierazten dute neurria ta tuntuna. Bai neurriz eta bat batean erortzen zirala! Orpo bat bakarra esan ziteken zortzi mutillcna. Gaiñera dantza kantatu cgiten zuten dantzariak berak, bi taldetan txandaka. Ori egin liteke gure mutil-dantzaetan ere.

IX. Xuberoíarrak

Ez diteke esan Xubero'ko dantzak bereiziak diranik. Gabota eta Branlea, eraunsi ditiozke Dantza Nagusiari, Godalet-dantza ardo-dantzeri, eta gaiñerakoak gizonezko utsczko dantzaeri.

X. Bizkai-daníza

Naparroan edozein dantza arrotzi Bizkai-dantza esan oi-zaio, ts ez egoki. Oraingo oni «Bizkai'ko dantza berria» esaten zitzaion orain dirala 150 urte.

«Orain kantatuko det // Bizkai'ko berria,
Goierriko neskaten // kontsolagarria»

asten zuten Gipuzkoan dantza au.

Kanpoko ote-da guzia? — Ariñ-ariñ 2/4 esan diteke euskalduna litekela, eta *orripeko* edo fandango csaten zitzaiona, ongi edo gaizki esana, beste oinbeste. Baiña *seguidilla* ez, beintzat, Uitzin' n crderazko itzcz ematen zutcna:

«Siete y siete catorce
siete veintiuna,
el que no tiene cama
duerma a la luna.»

Ez eta *jola* ere. Bi auek erderaz kantatzen ziran, bizkai-koplak sartu ziran arte.

Gaiñera, Azkue'k dionez. (I. c. pág. 8), Federico Olmeda'k *Cancionero burgalés'en*, dantza oni *porrusalda* deitzen omen dio. Guretik zala uste ote zuten?

XI. Danlza kaniaíuak

Euskalerriko dantzarik geienak kanta-dantzak ziran, eta batez ere Dantza Nagusia. Bi edo iru neskatxa iartzen ziran zalda-bai aundia txandaka iotzen eta kantari.

ZALDABAIA. Izenak dionez, galbai aundi baten neurriko zan. Orregatik esan zioten atzerritarrek // *lamburo basco, le iambour basque*. Oietako zárren bat ba'litcke ganbara baztarren batean galdurik egotea. edo uztai utsa bedercn. Uitzin ez dugu arkitu, baiña bizi da oraindio Mari Sukuntza, Uitzin zaklabaia azkena io zuna, 81 urtekoa, eta arek eman digu, galbai aundi bat artuta, egiazko neurria: 0,57 m. barrenez-barren. Inguru guzian kriskitiñak zitun binaka, eta aurreko aldean zinta batzuk gurutzeran, urre-kolorczko kaskabillo batzukin. Onela dio kantak:

Amalau kaskabillo // lau kana zintekin,
edcrki dantzatzen da // gustokoarekin.

Meaka-ezurraren gaiñean kokatzen zuten. eskuan erabiltzeko aundiegia zalako. Lenbiziko inguruak ezik, beste guziak ba zitu-ten beren itzak, eta onek *la ra la lai*. Bat edo batek, tuntunari y.c.gokala,

turun-tun-tun // turun-tun-tun,

eiderazko itz auek ipiñi zitioii:

qué iontos son II qué tontos son,
los mozos de este pueblo 'I qué tontos son!

Baiñan euskraz onela erantzun zioten:

Ba-dira abilak cre // ba-dira abilak ere
iru deabru // im deabru••

Iztuetak ere ba-dakartzi gizon-dantzaren koplak.

ZI7.TUAK ZALDABAIA LEKUTU. Gezurra dirudi, baiña ne-

ronek ikusia. Uitzin ba-zan txistulari bat, Manuel «aundi» (Manuel Soroa), eta aren bi seme ere jotzen zekitenak; baiñan oso bakan ikusi genitun jotzen igandeetan. Gaiñera ez ziran aski. Iru danboliñ bearko zuten beren soiñugailuekin edozein igandetan; alegia, iru Ingurutxo batean ere ateratzen baitziran: bata erriko plazai; bestea Marieneko larraiñean; bestea Irurte Txabalean edo Geratxoneko atarian. Orduan zan Uitzin erri alaia, ainbeste ikazkiñ, zerrari ta basagizonekin. Plazaola-trenak galdu zun bizibide ori. Orain zer ikusi dut igazko Samigeletan? Ziztua baztartua, zaldabaiarcn ametsik ere ez, dultziña bat eta auspo-soiñu bat, eta egurdi-erditan neskatzak bakarrik dantzari, mutil guziak geldi aldamenctik begira /eudela! Zer gauza ita ta itsusia!

Berriro zaldabciia? Tolosa'ko gazte batzuk agindu diclate, Dantza Nagusi au zaldabaiez ere emango dutela. Goitik ikasbidea emaitan baklin ba'da, erri txikietan ere zerbait egin ditek. Ikusiko ote-dugu berriro zaldabaia ta kanta gure plazetan?

ZIZTUA TA ZIZTULARIA ETA DANBOLIÑAK. Nik ez dut esaten ziztua gure dantza gu/icitatik baztartzeko, ez; baiña Dantza Nagusia zaldabaiez eman ditcla. Gaur len baiñon askoz errezago ia obeki egin ditcke ori, mikrofonoari esker.

Gaurko ziztulariak askoz obeak dira lengoak baiño ziztua jotzen; baiña danboliña jotzen oso aldrebsak, asko beintzat. Ontan zian iaioak zár aiek, eskola gabe ere. Zár guzia ez da on, eta beñi guzia ez da gaizto; batetik eta bestetik oberena artu bear dugu. Danboliña, tuntuna esan nai nuke. Nor da orain, csaterako. Lbaristo F. duain bezain tuntunlari onik? Ongi gogoan daukat, Leizak'ko plazan iru ordu laurdenez atertu gabe egon giñala iruindar bat eta ni. aren neurri berdintasunarekin arriturik. Metronomo bat ckarri ba'genu. etzait iduritzen arengandik pitsik ere aldegingo zunik. Bai ote-zan Euskalerrian ez ezen, lckura ere, zotza arek bezain zeatz eraman zezakenik? Oraingo auek, berriz, parragarrikeriak egiten ditute txotxarekin. Aidcan idukitzen dute nai duten aiña denbora, eta Iztuetak ere bcrc denboran ziona, kasketak ematen dienean jotzen dute arratza (Iztucta I. c. 47, 14). Batez ere Gipuzkoan gertatzen da au Alkate-soiñu esaten asi zaien doiñu oietcn. Ez, Gipuzkoa'ko napar-mugako errietan; auetan, Naparroan bezala, oraindio «dantza-soka» edo «soka-dantza» esaten diotenaren tun-tun ori len bezain garbi gordetzen baita bere biko neu-

rrian. Orregatik, Zumarraga'ko Alkate-soiñu aipatua oker eman zioten tun-tun'ean Gorosarri iaun zanari. iruko neurrian asita.

Danboliñak bear ditugu lenbizi, arratza ongi jotzen dutcnak; gero ziztulariak. Guzia esan bear da, eta ezagutu dut berriki donostiar gazte bat ziztulari ez ezen tuntunlari ona ere dana, eta ba -dut itxaropen, Gipuzkoako danbojiñak oraiñarfc baiño kasu gei-ago egingo diotela tuntunari emendik aurrera.

Atal au bukatzeko, ez dut utzi nai oiu egin gabe. ta oiu aundi egin gabe, oraingo ziztulariak ipernukocn airean eta uxtuan jotzen dutela soiñua. Ba-dirudite deabruak artuak, batzuk eta besteak ere. Bizkai-dantzak gureak baiño biziago dirala ikusirik. ba-derizkiote gureak motelak dirala, eta agurotu egin ditugu. damurik. Ez olakorik. Dantza guzietan neurria bear dugu, baiña batez ere gure Dantza nagusi ontan, aundiki-dantza ontan. Dantza-mota guziak gutxi edo asko au dute asmoetan bat: gorputzaren edertasuna, lerdentasuna ta liraintasuna erakustea. Eta milla tximisten uxtu orrekin galarazi egiten dute, gorputza eder, lerdan eta lirain agertzea. Zer bigarren ingurutxo baiñon egokiagorik ontarako? Baiña prisaka eramaten da'da, ez da astirik gorputzak bcre iarkera egokienak erakusteko.

Euskalerriko danízak erabat aipatu ditut, labur bederen, eta orain azkenik Dantza Nagusia nola dan edo nola zan eta nola cgin bear genuken adierazi nai dut.

XII. Dantza Nagusia Bedaio'n

Iritxi gera Bedaio'peko sagardotegi batera, eguraldi bikaiñarekin. «Orixe» an gelditu da bean, gora joateko gauza ez-eta; lagunak («Zeleta» cz besteak) errira igo zaizkio San Iñazio'ren Sagastian bazkaria antolatzen duten bitartean. Bazkal-aurrean agertu zaigu aspaldiko Sarasola (orain ogei urte otordu bat ona egiñak baikíñan eikarrckin) ziztua ta arratza edo danborra eskuetan ditula.

Gizon atsegiña, ta ikusiko dezutenez, galdcgingarria. Lenbiziko berria, nere oker bat zuzentzea izan zan. nik entzuna neukan Bcdaio'n dantza Nagusia ateratzen zala, baña Sarasola'k dioncz, bizi diranak ez dute ezagutu Bcdaio'n aurrekurik ateratzen; Amezketan. bai, oraindik ere.

Beclao'n ez omen da dantzatzen ingurutxoak besterik Dantza Nagusi ortatik. eta aietaz galderak egiten asi naitzio. Aurrena tun-Itmean esamiñatu det.

Artu clet arratza ta tun-tun au eman diot Naparroako erara:

tan tan tan. tan. tan.
tan tan tan. tan. tan.

Ela beste au Gipuzkoa'ko erara:

tan tan. tan. tan.

Bcreala erantzun diti Oi'i aureskuarena da. Naparroan soka-dantza esaten zio.

Jotzen diot beste tun-tun au:

tan. ta ran tan tan.
ta ran tan tan-

—Ori lenbiziko ingurutxo da, erantzun dit. •— Ederki, Naparroan ere ala esaten zaio.

Jotzen diot beste aUi

ta ran. tan. II ta ran. tan. // ta ran. tan

eia bigarren ingurutxo dala errex asmatzen du. eta berak jotzen dun bezela, ots, Leitza'ko eskolakoa.

Azkenik jotzen dioti

() tan. () tan tan tan tan.
() tan. () tan tan tan tan.

eta au Bedaio'n ez dala jotzen erantzun dit. Beraz. Dantza Nagusiaren tuntunak osaizeko. Lizartza'ra joan bearra. an ederki gorde baitute Berriz'ko Ontzako Urrearen Dantzarena.

Gero uzfen diot txotxa, ta asten da jo ta jo bere doiñu sortatik. Sarasola'ren eskola, Betclu'koaren eta Leitzakoaren naste bat da, Betelu aldera geixago etziten dala. Musika-sorta, berviz, asko Pon txo'rcna, ezagutu baifzun gure onek. Orain irurogeitamar urte ditu (nik baiño bi geiago) ta bear ba'da Iñazio Mulubcrria nik baiño geiagotan ikusi du.

Tun-tunean ederki ari da Sarasola; zarren eskolari jarraitzen dio, baiña zerbait kutsuturik dago berri auckin, agurotu egiten baita, dantzari bizitasun geiago emateagatik. Ziztulari zarretan onene takoarekin bcrdindu diteke, ta berrien aurrean ere jo dezake asko lotsatu gabe.

Lenbiziko Ingurutxoan ez diot ezer brcizirik arkitzcn. Tun-tuna guziek bezala jotzcn du, ta doiñuak Betelu aldekoak. Bigarren Inguruan daukat gauza bat auteman bcarra: zotza Lcitz'a'ko erara jotzen du, au da, 6/8'an. Geroxoago adieraziko degu au dala zannen neurri jatorra, ta nola pasatu geran ortatik 5/8'ra.

Joerazi dizkiot bestc doiñu batzuk, batez ere Antzar-jokuena. Antzarrari lepoa mozten diotenckoa Leitzan bezala jo du, Lau-daniza ta guzi; baiña mutillen buruzagi cdo Kapitanarena, Bctelun bezala. Leitzakoa jatorragoa da. Pontxok ere au jo oi-zuan. Ageri denez, Sarasola'k bi eskoletatik artu du bererako gogoko zaiona, baiña geienez Betclu aldera etziten da.

Naparroan txistulari ibilia da Araiz'ko Ibarrean, Larraungo lbarrera ere iritxi da, Azpiroz eta Errazkin arrapatzen ditula.

Sarasola'ren maisu beiñena Gaintza Naparroako Arresti, oker artu ez ba'nioii; Arribe'ko Juanbeltz eta Betelu'ko Arkotxa ta an ziran beste kozkorrak ere ezagutu zitun.

Berez ekarri zun griña ta joera gure Sarasola'k izizturako. Aitak pixkaren bat bai omcn zekin jotzen, baiña scme au zarrik oberene-km berdindu genezake, cta oraingoan aurrean ere jo dczake lotsarik gabe bere musika sorta.

Egia, nasten ditu angoak emengoekin, Pontxok ere bezala. Ez uste izan zar aiek ematen zituten soiñu guziak euskalrlun jatorrak ziranik. Entzun izandu nizkion Pantxo zanari *La Muñeira, el him-110 de Riego, la Purándula provenzal*, eta malagueñaren bat ere.

XIII. Soka-daníza (Aurrekua, Alkate soiñua)

Guk Naparroan «soka-dantza» esatcn diogun tuntunari, Gipuzko'an Aurreskua esan oi-zaio, eta orain Alkate-soiñua. «Aurresku» izenik ez da aipatzen Iztueta'rcn Gipuzkoa'ko ogeitamasei dantzetan. Nagusiarcn zati bat zan, lenengoa, eta onekin gelditu zi-

ran Bizkai-Gipuzkoak. «Alkate-soiñua», berriz, Iztuetak l)erak asmatua du: «Minuetari Alkate-soiñua esango diot». Dantza nagusiaren lenengo pauso ori, toki-alda edo tokiz aldatzeko jotzen zann da. «Jotzen zana» diot, orain oso bakan entzuten baita, zorigaiztoko biribilketa oiek sortu ziran ezkeror. Iztuetak ere ala diOs toki batctik bestcra joateko, soka-danlza au jotzen zala.

Berak, ordea, gauzak pixka bat násten ditu, eta < *paso de procesión* » Eliz-bira zalakoan, auetarako Amabost misterioak jotzea cgokigo zala esan zigun.

Noiz eta nola sortu dira guda-neurri edo marcha oick? —Eus-kalerrian ez da ageri, kantetan, olako neurririk, oso bakan besterik. Bilduko ote-lirake zazpi, Probintzi bakoitzarentzat bana? —Naiko Iaii; eta ez, kantarik zarrenetakoak. Sarasola cre kutsaturik dago ortan. Pontxo ere ola zegoan. Nik uste, karlisten gcrratcak ezkcro ugaritu dala tun-tun ori. Ba-dakigu, Santa Krutz apaizak ba-zula bere txistularia. Jakiña, soka-dantza motelcgi gelditzen zan gudaria beroerazteko; beraz, guda-neurria artu bcar. Ori diteke tun-tun orren asiera.

Dantza nagusiaren lencngo pausoa tun-tun onetan eramaten da, lenengo Ingurutxoraño. Tartean desapioa dala, laister jkusiko cegunez.

Esan dcgun tun-tun ortan, bada. mutillak erriko etxetik atera ci-ziran, eskutik elduta, soka plazara, bcrzko pausoan. Bein mai-buruko jaun aundiengana urbiltzen zirancan (Apaiza ta Alkatea ziran oiek), aien aurrean ateratzen zuten 2/4'ko zortzikoa, bai aurrlariak, bai atzelariak. Plazari giltza emanez, zubia egiten zan, aurreko bien bcso-azpitik pasatzcn zirala. Ori egiñik, aurre-atze koak desapio botatzen zuten, dantza onek dun pausorik zarrena, iñolaz ére, ta urrena, «Aureskua» esaten zaiona dantzatzen zuten, eta onela bukatzen zan dantzarcn lenengo zatia. Orain ekartzen edo serbitzen ziran ncskatxak, eta ez lenago, Iztuetak dion bezala, ta erri txikietan cgiten zan bezala.

XIV. Lenengo ingurua

Soka-dantzaren tun-tuna ixiltzen zan, eta deia jorik. lenengo inguruarcna. lenago esan degun tuntunarekin. Emen ziztulari gu-ziak batera datoz. Baizik ere, oraingoak presakatu egiten dirala.

Bi lerrotan jarlzen dira neska-mutillak bereiz, eta elkarri eskuak eman orde, damak galaiari sudur-zapi sedazkoa luzatzen clio. Oiturraren garbitasunagatik ote dan asko esan da, bear ba'da, batere ez da olakorik. Zubiak egitean apaingarri cderra da, ta zubia ere zabalago gelditzen da, bikoteak andik lasaiago pasa ditezten. Izan ere, lenengo Ingurua bukatuta, sudur-zapiak bildu cgiten dira, ta uirengo inguruetan eskuak cmaten dizkiote alkarri, bata bestearen beso-azpitik pasatzcn diran aldioro.

Inguruak egin ditezke nai aiña, ta aien ondolik zortzikoak (2/4'koak). Azkeneko zubian aurrekoa bere tokian gcllditu bear du.

XV. Bigarren iugurua

Bigarren ingurua danbolin jatorrak 6/8'an eramaten zuten, bai /ubietan, bai zortzikoan. Pontxo'k 3/4'an eramaten zun zubia, ta 5/8'an zortzikoak. Nondik atera da 5/8 ori? Nola garbitu auzi ori?

Ikus zer esaten digun Aita Donosti'k bcre azkeneko liburutxo *Ilisloria de las danzas de Guipúzkoa'n* (pág. 99, nota):

«Zortzikoak zortzi bertso ditun ahapakli edo kopla da. Doiñuz gaur 5/8'an idazten degu, neurria 3 ta 2'tan banaturik. Antziña tuntun au 6/8'an idatzi oi zutcn, baiñan ez zun notaen balioa zearo ematen».

Bi gauza bereizi bear dira emen, oraiñarte, nere ustez. iñork bereizi ez ditunak: arratzaren tuntuna, eta zangoen neurria. Antziñakoek arratzaren tuntuna idazten zuten, eta garbi ta zearo, ezer utsegin gabe,- baiña gaurkoak, Pontxo ere aurreko zutela. zangoena idazten clute. Izan ere egin bedi saioa zortzikoak 6/8'an dantzatzcn, eta oso bortxazkoa da, zango bat luzarcgi airean idukitzea. Zangoa *nai ía nai* ez 5/8'ra crortzen da. Egin bedi saioa, esatera-ko, Gipuzkoako zinta-dantzarekin. Olaxe erakutsi nien Pau'en Altube ta Zatarain (seme) jaunari, ta etzuten besteratu. Ortan dago auzia. Komeni litzakela alkar artzea, ta tuntun ori 5/8'an jotzea? Bedi,- baiña lengoek arrafzaren tuntuna ederki ematen ziguten. Zangoena ez ematea oker egiten zutela? Ditekena da.

Iztueta'k ere (asieran) «6/8 zortzikoak» edo «saltokakoak» deitzen die.

Gure inguruetan izan dan danboliñik jatorrena Leitza'ko Pastain izan da. Pontxo areago ziteken ziztuan, baiñan arratzean oraingoetara erortzen zan. Ez óet esaten zortziko au 6/8'an idazten jarraitu bear dugunik, Iztucta'k eta Pastaiñ'ek eta bezala. baiñan aien patxaran jo dezatela. gure dantza aundiki au kaxkartu ez de din. Ontan Pastaiñ'en eskolakoa da gure Sarasola au. baiñan csan dedanez. agurotu egiten da.

Nik iru ikasle ezagutu ditut Pastaiñ'enak: Ebaristo Elduain, Leitza bertakoa; I. Antonio Arotzena, Lizartzakoa, ta nere jaioterriko]. Iñazio Atxega. Oien patxarara biurtzea nai nuke nik. naiz ziztua. naiz zaldabaia jotzen dala.

XVI. Zorlzikokoak nola danízülu?

Ontan abildadea librc ikusi izan degu, baiña jarri bear litzako lege bat, ez zorrotza. Tuntuna bereizia dutenez gaiñera, lenengo zortzikoak eta bigarrenkoak beste bereizgarri bat zuteii: batzuek syhokakoak zirala, bigarrenak; lenengoak ez. Izan ere ikusi ditut nik gure zarrak Betelu'ko lcgca zortzikoak ematen, saltorik gabe ta giltzik gabe, aruntza ta onontza, aurrera ta atzera ibiliz. Egia esan. moteltxo gelditzen dira. Orregatik gaztcgoak Leitza'ko moda artu •/uten: saltoa guraizearekin. Zangoekin guraize osoa, naiz erdira, naiz bazterretara, naiz atzeraka, bigarren zortzikoetarako ufzi ditek. Lenengoan aski litzake guraizc-erdia zazpigarren bertsoan, etü gurgilla zortzigarrenean, giltza emanez zangoa jasotzeko. Laugarren bertsoa bukatzean, zangoa oso gutxi altxatzen zuten gure zarrak, eta zortzigarrencan egiñala guzia. Bigarren zortzikoetan saltoak eta guraizeak egiten dira (guraize bikoak ba'lira obe), zarrak egiten zuten bezala.

XVII. Lizartza'ko tunluna

Txistularien Zumarraga'ko jai aundi artan entzun nien lenengo aldiz Lizartza'koeri Berriz'ko tuntuna garbi, baiñan ikolduta edo hiburtuta, kolpe bat gutxiago emancz, Gero etxeko sapailotik, iru kilometrora, urruti nengon oso. ta cz nitun ikusi dantza-pausoak. Ongi izango da Lizartza'ra txango bat cgitea. Zortzikorik ez det uste atera zutenik.

Aien pausoak ingurutxorako on ez ba'lira, asmatu diteke bes-teren bat, esaterako, onela: Ingurutxoko bi lerroak irtcerako jar-keran oiñak dauzkatela, au da. neskatzak ezkerrekoa aurrera td rtiutillak eskuiekoa, beste oiñarekin aurrcra-pausoa egin besteare-kin irutxur cgiten dala. Irutxur au, beste oiñaren beatz muturretik oin-bularraren parera an ukondo cgiten dala ta orpora, eta gekli-unea oin-bularraren ondoan. Beste oinbeste egin beste oiñarekin.

Lizartza'ko musikaren antzera, musiku batek ondu dezake zor-izikoa, naiz Beniz'koa ere artu.

Amezkeiara

An dantza nagusi osoa cgiten omen baita, ara ioan bearra da-go. Ez da, beraz, gauza zailla dantza aundiki au lengoratzeta.

Ni zerbaitetan oker ba'nago, beste batek zuzcndu dezala, Iz-tueta'renetik eta errian ikusi duntik.

* * *

Oarkizunci. Liburutxo ontan, zirri-marraz gaiñera, Gipuzkoa'ko bigarren ingurutxo'ko iru doiñu auek ipiñi ditezke, musikarekin eta itzekin:

IDIARENA, (doiñu nagusian, nik Uitzin dantzatu bezela).
TXIN TXIBIRIBIRON KAMINO EZ DAUKAT DIRURIK.
NOSKATXA TXURI GORRI (Xenpelarren itzak).

«IN TE CANTATIO MEA SEMPER»

SARRERA

Zartzarotik urbil
ondu nai nituke
zenbait Jelo txuri.
Zu zaitut kantagai;
beste zerk ez beza
iiere griña mugi.

Albotik auzoa
nere pake-guraz
alperka zait ari.
Ainbat aztarrika
egiñik, egona
ez al zait zillegi?

Atsedena duket
Janik oberena
béti Zugan begi.
Zuk eni, nik Zuri
so, bien begiok
lot bitez elkarri.

Pindar irazekiz,
Biolz orren garrez,
—Isaias'enak
liraken iduri—
ezpain eta biotz
eizadazu gori",

Ez itz, ez eragin
gurbi) ez doanik
ez bekida ialki.
bGIA baitzera,
egi au artzen dut
klo auen neurri.

Zuk emanik indar.
gazteen Jilluraz
has duían lanari,
d^mu ta maitasun,
Li orpo sendo auk
bizkiot ezarri.

Zure aitzinean
murgilik, «au nauzu»
esan nun aspaldi;
utsak uts, Zurekin
zerbait naizala-la
aunitz esker Zuri.

Zure begi oiek
saiets errukiro
ene gaitzetatik;
nik ere saiesten
dituda. lenago .
nintzan arengandik.

«Maitego damugo,
damugo maitego»,
Madalen'ck dakii
orrek garbi beza
nere orban oro
cz begon makarrik.

Nini orictan
ezin erraiñu da
nereko xakarrik.
Zertako so egin
neronen baitara
makets ager nadin?

Ikus-naiak nauka
Zu nigan, ni Zugan
—or ez dut itzalik—
ni sortu baiño lcn
Zure begietan
nengon bezain garbi.

Oieri begira
Zurekin batean
sumatzan (sic) naizgarbi,
Bai zerala cder!
Bai naizala edcr!
Nagozun atzarri.

GAU-IZAR (1896-1900)

A M O N A

Odolozten asia zan
omona Mari Axuntxi,
apaillora ninderaman
—ni eskutik ezin utzi—.
Egoa pal pal zcbillan,
ez zan eguzkia gaitzi;
b; biok alki banatan
geuren lana genun atzi.
Iostorratzari aria
neri zidan sarrerazi,
Meza-liburu maketsa
cskuan zidan ezarri:
• Emak Gurutze-Bidea,
gaiten otoitzean asi».
Amona koxka ta koxka
—xarpillik ba zizun aski—
ni lcitzen aren gogara,
czpaiñctan artuz asti.

Lenen, bigarren, laugarren,
zenbakarrenik nork daki?
atertu zan, bi begiak
zerura zitun zabali.
Aurrera ni, Iauna, Zure
nckea gogo emanik,
otoitzaren atsegiña
Zugandik artzen nularik.
Arnasik ez asperenik
ezin entzun nion ari:
malko gabeko negarra
berdin dario aitzari.
Aldarean ala dago
Santana Zure amatxi.
Ilzali zan; eguzkia
Gorriti'ra zan irauli.
Iizuli zan amandrea
gaiñezkaldi aretatik;

"In te cantatio mea semper"

sukalde-txoko berora
azlamuz ietxi zan anclik.
Bost akliz ikusia naiz
egon aretan amañi
ez-iakin iakintsu aren
ikasle zur nintzala ni!
Ua bezala nai nuke
ikasian ez-ikasi.
Ua lako gurasorik
otoifzean ez dut kausi.
Goiz illunak oloizgaia
beti dut oi Getsemani:
ixil amonaren saiets
orduko gisan naiz iarri.

Buru biotzen ekinak
ordun aña noiz diraki?
Geldi dirudin txirrika
usuago da ioaki.
Ez nekerik, ez asperrik.
orduk uneka doazi.
Geldi adi, gau! Al eza
eguna berantarazi!
Goiz itsua da, oraino
oillarrik ez da kantari,
euliak zirrikuetan
arrautzak berotzen ari.
Izarrek ixilik dantza
OAgiotc Iainkoari.

LENENGO TXOKOA (1905)

«Santa Rosa»ko basora
otoitz egitera noa.
Aizerik ez, ixil-billa
beti pake-zur nabilla.
Ezeren txintik ez dantzut;
Zu soilik entzun nai zaitut
Urbildu naiz oianera,
cguneroko bidera,-
txirrifak asi bctbetan
polatuen ziztueta!
Aferr-unc gabe ari
bi bclarrien sorgarri.
Beti bat, *Ja* dudakoa,
iñoiz ez ixiltzekoa.
Gure aifonak irrintzi
ctzun egiten ain iantzi.
Donostin ala turuta
arraunketa bukatuta;

baiñan an onfzi bakoitza
doiñuetan banakoitza.
Au buruko zorapena
txirritek dakardatena!
Non dut nik ixiltasuna
otoitza berekin duna?
Kaiolan ixil txorta-.
xixtuz ba'nintzan asia,
a/karrago bere kantan
ni garai-naiez asten zan.
As nadin ni ere berdin
txirriten nagusi nadin.
Idurituz Uitzira
an Corpus'ez Elizbira,
ez urian dan apaifja,
baiña nerctako laiña.
Otoitza gaur kanta bekit.
ori cgiten maiz dakit.

Ango ezkilen dandara
 garbi bclarrietara.
 Arrosa, lezka ta belar
 orok artzen dute alkar.
 Intsentsu aren lurriña
 iñoiz itzali eziña.
 -laungoikoaren bidea»
 du Elizbirak legea.
 An bi lerrotan gizonak,
 mordoskan ondar amonak.
 Uitzin nago iñolaz
 txirritez gutxi axolaz.
 Asi naiz kantaz, ez bakun
 Uitziarrekin lagun:
Pcinge linguci, Laucla Sion
 eta biotzak zer dion.
 Santa Rosa'ko basoan
 nabillanik cz gogoan.

Berian egiñez abaro,
 ordua laister igaro.
 'ixirritak ixildu dira,
 bukatu da Elizbira.
 Eliz aretan goiz-Mezan
 Iauna gogoz artii nezan.
 Urte aietan ba-nekin
 lnze iarduten Zurekin.
 'Azken-apari» bertsoak
 amonak esandakoak
 utzi zuten beren guna;
 gaur entzun dut oiartzuna.
 F.liz ailan dut gaur pakc,
 iisurik arki nezake.
 Naiz soiñu oro nabari
 nere bclarri-mingarri,
 barrenak claki txokoa
 bcra pakeatzekoa.

SINISMEN GARBI

Hkia baiño len
 Burgos'ko Zumardi
 cderrean barna
 ipar piña zantzu,
 opor-egun osoz
 Kartusi aldcre
 ixil otoitzean
 oituraz noazu.
 Landa dut otoizgai:
 begiz ta belarriz
 asirik, nolabait
 nai zaitut sumatu.
 Zure begi omen
 dan cguzkiari
 goiz-laiño zuriak

ijen dio gandu.
 E7 luzaro. Bela
 iango du laiñoa:
 Bagilla clalarik
 ckiak indar du.
 Muskillcn gaiñetik
 urretxindor batek
 oles eta oles
 inoxkorrik diardu.
 Kartusian ixil
 gau-loaren mende:
 gauez zuten xinta
 oloitz eta Salmu.
 Aickin txandaka
 zaitzala goretsi,

ez baitu txori ark
 gauetz loa galdu.
 Eguratsez, argiz,
 begi eta kolko
 aserik, ixilla
 clut nik nere kantu.
 Orotan baitzera,
 arnas bakoitzean
 sartzen zindudala
 nezaken asmatu.
 Utik. Anaximen!,
 lainkoa ba-dakit
 cgurats ez dala,
 ex nazazu nástu.
 Alde, Plotin!, ez da
 argi meia ere,
 ez daífe zentzuz, ez
 iduriz ukitu!
 Baiña zentzudun ni,
 Zu soil atzi orde,
 zentzuen goxoa

ezin nun ukatu.
 Orduko malkoak
 zer damu? Zer maite?
 Ni, bai; etzindudan
 garbi billatzen Zu.
 Artan, Donibane
 Gurutz'ek ziraustan
 siñesmen legorra
 nezala billatu.
 Angoxe basoan
 nuen irakurri
 siñesmen soilarcn
 urren zcundela Zu.
 Kartusi Eliza
 Eliz ixillena
 pake ta siñscmcn
 zin-ziñen crcdu.
 Barna guritzen dit
 oraindik oraino;
 siñesmen legorrak
 guria sari du.

Urte txoro etan
 loi aunitzen arten
 urre-pikor zenbait
 ote nitun batu?
 neronen arnasa
 baiño barrenago
 zindutala. ez ni
 oino baítaratu,

(Au eskuz idatzia dago orrialdepean)

"ANATE" BATEN ITZALEAN

Gogoan daukat aur nintzancko
 iMusulun'go pagopea,
 izercliturik arrixku baitzan
 itzal artan esertzeu;
 baiña sargori zegoneako
 goxoa bai oatzea!
 Goxoagorik arki dut emen
 Amate'ren gerizpea.

Euli urdin bat erclian egan
 dabil ala geldi dago?
 Zeru garbian Kondor bat ixil
 egal-ontzitik gorago.
 Emengo bero zakarrenetan
 aroaz azturik nago,-
 atsegiñ onck sarrerazten nau
 nere baitan barrenago.

Ez dut entzuten txori-fxiorik,
 aizerik, erle-soiñurik;
 bidcz nekatu gabe bainago,
 ez ta nere pilpirarik.
 Zer entzuten dut adi nagola?
 — Nere arnasa bakarrik.
 lñon bai al da pake artzeko
 bakarrago dan gelarik?

Bil bil egin naiz neronengan
 auspean sua bezala,
 pizturik nagon, itzali naizan,
 ncronck cz dakidala.
 Ortik aurrera au dakit soilik:
 griña batck naramala---
 Pago arena baiñon obe zait
 Amate onen itzala.

O S A S U N A

Senecius mea în misericordia uberi.

Nere zarizaroa errukiian ugari.

A

Dabid'en aitorra dezadan berritu:
«Nere zartzaroa errukiz ugari»
Aldetik doana, ni nakusanean,
arrituz bezala onela zait ari:
—Zagar onek ez du xiinurrik larruan,
guri du lepoa, kolorea gorri.—
Ola mintzo danak, lengo zargail onen
oraingo sasoia non dagon ez daki.
Txit gazte nintzala miñak eta griñak
lurrera kakoan ninduten bigurri.
Ogeitamar eskas. beltxeran, lurkera
iru oin laburrez nindabillan zuti.
Bi alako ta bost ditut Juzetxoak,
alai aurpegia, zuzen bizkar. gerri.
Aitortzea zor dut eskcr on cmanez,
Zuk in duzu, Iauna, olako mirari
Ur bero ez belar izadian ez da
nere gaitz gogorra menderatu dunik.
Zuk ezur eta muiñ legundu didazuz
olio garbiren gantz-uriñarekin.
Liban'go izaiak zartzaroan ere
eze dagoela ematen arnari.
Zu zaituda, Iauna, eze, Zu olio,
Zure bcroz eman dezaket igali.
Zuk sartu didazu ezurretan pake,
orain. onerako odolak diraki.
Tarrapafa gabc oioitz ixiJean
ni geldi nagola nor ote zait ari?
Ez al zitun Iaunak zeru-lurrak ondu
zirkiñ eragiñik zegoela geldi?
Otoitza, Otoitza! pakearen ama,
nere sendabide, indarren iturri!
Sar nadin maizago betiera ortan
aldarterik gabe, naiz ustez ez igi.

Ii

Bcra ta berago ikusi aut urbil,
Erio, «lazgarri clenctan lazgarri».
Nor ez ikaratu? Kezkatu bederen!
Beste gizon denen antzeko nizak ni.
—Ala nerez; baiña zertara-nai nengon
ukan naiz ez-ukan, erio naiz bizi.
Otoitzean ala pozaldien gingan,-
baiña zer nesake gertatu ba'ledi?
Oraiñ ikusi dut, Iauna, Zuri esker:
enaiz ortan are giblez bildurti.
Erio iaun orri, bekoz bcko gerta,
dardar cgin gabe eman diot begi.
Ba-dakizu, Iauna, ez dala gezurra
neurtitzez; ola da gerta bezain egi.
Oraintxe bai bipil, kolkoa zabalduz
egiz diotsazut: NAI DUZUNA BEDI.

LEMA: «Bien devoto de Berceo»

LA METRICA DEL VERSO

(Sátira)

En nombre de Dios Padre que da la luz del día,
e del Verbo divino foníe de la poesía
e del Espiritu Santo, inspirazion e guía,
quiero fer una prosa / Valedme, Santa María.

Soy Gonzalo de Berceo, que vos fabJa dende el cielo.
Con pena veo, poetas, cómo rodais por el suelo,
sin un sano preceptista, e sin nengún buen modelo.
Si seguíis mis ensiemplos, levantarédes el vuelo.

A dónde *esiá*. la mi Rioja, Ja de los ricos graneros,
la del home sesudo Bretón de los Herreros?
porqué sos desviasteis de los ciertos senderos,
siguiendo los consellos de Jos poetas giieros?

Cerrad, cerrad los oios; abrid bien las orellas,
ca la poética sciencia es sólo para ellas.
A qué vienen las líneas, más longas o breveciellas,
ya para cantar amores, ya para plorar querellas?

La piñtura y escultura a los oios se refieren
qué mas les da a las orellas, si a ellas bien fieren,
cuatro sílabas, ocho, doce, las que quisieren?
Qué más diera si los versos como prosa se escribieren?

El visivo criterio non es para los versos;
oios cerrados pueden percebirlos bien tersos,
en coplas o sin coplas, e con ritmos diversos,
complidos en palabras, en belleza sumersos.

Qué más da escribir así	Prima y tercera son libres,
en líneas demidiadas,	segunda y cuarta soltadas.
por distquziar mas la rima	La cesura face rima,-
que siempre en rima acabadas?	más rimas, son clemasiadas.

Válame Dios! Qué reparo? Rimar primero con cuarto,
e segundo con terzio: de escucharlos estoy farto!

Quién ba visto caminar. en alturno pie non siendo,
un paso con uno dellos y dos con el otro baciendo?
Pazienza tiene la orella para seguirles oyendo
a esos vates matachines. A los tales non defiendo.

Rsta falta se comete en España, en la Galia,
pasando por Portugal e terminando en Italia.

Respetad nuestras orellas, poetas mal enseñados
cultivad aína el ritmo, non sigáis desorientados.

También yo fuí engañado con copla sicmpre cuaderña;
Según la lcy del oído, tanto daría la terna,
E non quiero mormurar de la métrica moderna.

No hay verso sin cesura: las rítmicas unidades.
análogas solo valen, si non son egualidades;
estrofa impar como esta, irregular non digades.

Mirad cuál encanta Homero sin aquesas divisiones /.
Píndaro con Horazio e demás segundones,
non fazen sinon tornar muy más rígidos los sonos.

Ritmo e más ritmo nos pide en verso la poesía:
ese es el vero sonar, esa es la vera armonía.

Ante todo inspiración, luz y calor dczir quiero;
que el Padre de todas lumbres alumbre nuestro pensiero,-
dempués, que corra la pluma con entusiasmo sincero,
e asmar hasta las fábulas con sentido verdadero.

La métrica del verso

Conmigo están don Homero e Vergilio juntamente;
mas a Horazio non le veo, ni a la demás sucia gente,
en el Porgatorio estén, aunqu non eternamente /.
Exhorfo a Ja gente gaya que siempre sea dezente.

Riojanos, non olvideis San Millán e Santa Oria;
recordadl Santo Domingo de la milagrosa historia
que fizo cantar el gallo asado ya en la frixoria;
pedildes inspiración, gracia y a la fin la gloria.

Bien devoto de Be

ARKIBIDEA

Orrlaldea

Atarikoa. <i>Miixelenatar L. M.</i>	5
---	---

GIZONA

«Orixe» zanaren biziaklia. <i>Aranaldetar /.</i> M.	13
Nikolas Ormaeíxea (1888-1961). <i>Labayendar A. M.</i> (<Iba- lan»).	15
«Orixe» gizon. <i>Eixaniz'tar Nemesi («AmiUaitz»)</i>	25
Gure Iruxki aundia. <i>Aranalde'lar /.</i> M.	35
«Orixe» EuskaItzain. <i>Garmendia'iar Jon (+Zeieia)</i>	41
«Orixe» ta Bedayo'ko Txistularia. <i>Garm.endiá'tar Jon (<Ze- leia*)</i>	45
«Iainkoak ekarri nau onera». <i>Garmendia'iar Jon (<Zeleta*)</i>	53
«Orixe» jun zaigu. <i>Artola'iar Femando (*Bordari*)</i>	61
«Orixe» ez da il <i>Aiia Goiria</i>	65

IDAZLEA

«Orixe»ren lanak. <i>Bilbao'iar Jon. Aita Onaindia</i>	71
«Orixe» Euskeratzalle. <i>Ibinagábeiiia'tar Andima</i>	87
«Orixe» izkera-zale. <i>Oiarzabal'dar Martin</i>	119
«Orixe» Olerkari. <i>Aiia Onaindia</i>	125
«Orixe» Jainko-billari purrukatua. <i>Aiia Baziarrika</i>	165
«Zugan beti nire lelo». <i>Goikoeixea'tar Iñaki («Gaztelu*)</i> ***	191
«Orixe»ren Metrika. <i>Lekuona'tar Manuel</i>	209
«Orixe» itzorkunlari. <i>Álúnatar Patxi, J.L.</i>	235
Izkunízaren nekazalea. <i>Erkiagáíar E.</i>	249
«Euskaldunak». <i>Zaitegi ta Plazaolaiar Jokin •</i>	255
«Urte guziko Meza-bezperak». <i>Jbiruigabeiiia iar Andima ••</i>	275
«Urte guziko Meza-bezperak». <i>Labayen'dar A.M. (<Ibalan*)</i>	281

«ORIXE»REN ARGITALDU GABEKO LAN BATZUK

Gizabidea	287
Siñets-begiak	293
Dantza nagusia	295
«In te cantatio mea semper».	311
La métriea del verso.	319

